

"Iraganarekiko
fideltasunez ala ez,
filmek sortu diren
gizarteaz
dihardute"

Iñigo
Marzabal

Doktorea Ikus-
entzunezkoetan > 06



HEZKUNTZA

Ikasturtea inauguratu du UNEDek,
baina izena eman daiteke > 04

ARRASATE

Herria zailtasunak dituztenendako
egokitzeko, 25,7 milioi euro > 10

OÑATI

Zaborraren tasa %13,9 igoko da
2008an, eta urarena, %8,77 > 12

FUTBOLA

Preferente mailako hiru taldeek
emaitza txarrak izan dituzte > 16

ERLIJIOA > BEATIFIKAZIOAK

Hiru debagoiendar dohatsu aitortu zituen Aita Santuak atzo

IBARREKOAK Zenona
Arantzabal (Elgeta) eta Sabino
Aiastui eta Miguel Leibar
(Aretxabaleta) dira dohatsuak

GERRA GARAIAN Hiru erlijioso
debagoiendarrak Espainiako
Gerra garaian hil ziren,
errepublikarrek fusilatuta

IA 500 Espainiako Gotzain-
Batzarraren XX. Mendeko
Martirien zerrendan zeuden,
beste 495ekin batera > 04



TALDE EDERRA Laurehun Arantza, Arantxa edo Arantzazu batu ziren atzo Oñatin.

JOSETXO ARANZABAL

Arantza izeneko 400 emakume batu ziren atzo Arantzazun

Adin guztietako eta txoko askotatik etorri-
tako 400 emakume elkartu ziren Arantzazu-
zun atzo, Arantza, Arantzazu zein Arantxa
izenekoen topaketan. Euskal Autonomia
Erkidegoan bakarrik, 20.000tik gora Aran-

tza daude erroldatuta. Meza izan zuten
lehenengo, eta, argazkia atera eta gero,
batzuk bazkaritara joan ziren Sindika jate-
txera; bazkalostean, dantzaldia izan zuten.
> 30

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Roy Loney rockeroa, solaskide

Rockero beteranoa
Arrasaten izan da, eta
elkarrizketa zabala
egin diogu > 23



Roy Loney.

MAIER URANGA

KIROLA > ATLETISMOA

Jose Ramon Petreñas saritu dute

Azken 25 urteotan epaile
lanak egitegatik jaso zuen
Jose Ramon Petreñas arrasa-
tearrak Gipuzkoako Atletis-
mo Federazioaren omenal-
dia. Halaber, Petreñasek
nazional mailako epaile titu-
lua du, eta, besteak beste,
Donostian jokatu zen Betera-
noen Munduko Txapelketako
epailea izan zen. > 22

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 07-08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduak > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

AISIALDIA > PAINT-BALLA

Paint-ball zelaia dago Arrasaten

Debagoieneko lehenengo
paint-ball gunea zabalik dago.
Arrasateko Bedoña auzoan
dago, hain zuzen ere, eta dena
gertu dute arduradunek joku-
tu gura dutenak joan daite-
zen. Jantzi egokia ez dutenei,
han utziko diote. > 09

OSASUNA > BURUKO GAIXOTASUNAK

Gaixo mentalekin boluntario ibiltzeko ikastaroak daude

Aita Menni eta San Juan de Dios
Ospitaletako boluntarioen lanaz
arduratzen diren sailek formazio
saioak antolatu dituzte, azaroko
eguenetarako, boluntario izan
nahi dutenendako zein gaiareki-
ko interesa duen edonorendako.

Jardunaldiokin azaldu nahi
dute boluntarioek duten garran-
tzia buruko gaitzak dituztenen-

dako, batik bat, harremanetan.
Saioen helburuak dira gaia ger-
turatzea herritarrengana, gaixo-
tasun mentala dutenenganako
sentsibilizazioa eta elkartasuna
bultzatuz; ospitale psikiatriko
baten boluntario izateko oina-
rriko jakintza ematea; eta gai-
xotasun mentalen gaineko gaiz-
kiulertuak argitzea. > 02-03

SARIA > MANUEL LEKUONA

Salaberri, Lekuona sariduna

Sabin Salaberri musikari eta
irakasle aramaioarrak jaso-
ko du, aurten, Eusko Ikaskun-
tzak ematen duen Manuel
Lekuona saria, euskal kultu-
rako pertsona aipagarrienak
saritzen dituen. Udaberrian
emango diote saria. > 27

OSASUNA > BURUKO GAIXOTASUNAK

Borondatezko lana buruko gaixotasunen aringarri izan daiteke zentroetan

FORMAZIOA Osasun mentaleko arazoak dituztenekin boluntario jarduteko prestakuntza hitzaldiak egingo dituzte

GIZARTEA Gaixo kopurua gora doanez, inguruan ia denok daukagu buruko gaitzen bat duen lagun edo senide bat

BOLUNTARIOAK Ospitale eta zentro psikiatrikoetan diharduten boluntarioek harremanak lantzen dituzte, batik bat

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Aita Menni eta San Juan de Dios Ospitaleko boluntarioen lanaz arduratzen diren sailek formazio saioak antolatu dituzte, azaroko eguenetarako, boluntario izan nahi dutenendako zein gaiarekiko interesa duen edonorendako.

Jardunaldiok azaldu nahi dute boluntarioek duten garrantzia buruko gaitzak dituztenendako, batik bat, harremanetan. "Saioen helburuak dira gaia gerturatzeko herritarrengana, gaixotasun mentala duten pertsonen sentsibilizazioa eta elkartasuna bultzatuz; ospitale psikiatriko batean boluntario izateko oinarriko jakintza ematea; eta gaixotasun mentalen gaineko gaizkiulertuak argitzea", esan digu Mirari Korta Aita Menniko boluntarioen koordinatzaileak.

EZJAKINTASUNA

Mirari Kortaren esanetan, gaixotasun mentalen inguruan, ezjakintasun handia dago: "Horrek buruko gaitzei beldurra izatea eragiten du. Askotan, gaitza zer den edo gaixoaren sufrimendua zenbaterainokoa den ez jakiteak eramaten gaitu pertsona horiek baztertzera edo ez ulertzera. Bestalde, hedabideek, oro har, buruko gaitzen gaineko alderdi ezkorra baino ez dute azaltzen".

Ezjakintasunari aurre egiteko, formazio saioetan jakinaraziko dituzte osasun mentalaren gaineko oinarriko kontzeptuak. "Hasteko, jakin behar dugu gaixotasunak direla, eta ondorioak askotarikoak izan daitezkeela. Ondorio zuzenek gaixoen bizimodua aldatzen dute. Esaterako, gizartean leku bat duen pertsona gazte bati, bat-batean, buruko gaitz bat diagnostikatzen badiote -desoreka, eskizofrenia, depresioa...- ordura arteko bizimodua apurtu egiten dio: lan arloan, lagun taldean... eta familiar ere sekulako eragina du. Jendeak jakingo balu tratamendu batekin gaitza bidera daitekeela eta baliabideekin nolabaiteko bizitza integratua egin dezaketela gaixoei, gizartean euren eragina errazagoa litzateke bizimodua", azaldu digu Aita Menniko Mirari Kortak.



HARREMANAK Egoitzakoak ez diren pertsonen harremanak izateak lagundu egiten die gaixoei.

GOIENKARIA

BALIABIDE ETA BEHARRAK

Askoren okerreko ustea da gaixotasun mentalen irtenbide bakarra tratamendua eta bizimodu isolatua egitea dela. Mirari Kortaren esanetan, "baliabideak ipiniz gero, aukera dago ondorioak arintzeko, bai gaixoari, baita familiei ere. Familiek pisu handia hartzen dute

"Gaitza zer den eta sufrimendua zenbaterainokoa den ez jakiteak garrantzitsuak dira gaixoen baztertzera"

horrelako kasuetan; are gehiago, joera dagoelako ahalik eta denbora gehien euren ingurunean jarrai dezaten. Gaitza sakona bada, tratamendua ez da nahikoa, eta eguneko zentroetara, zaintzapeko etxebizitzetara edo jarraipen zuzena egingo dioten zerbitzuetara bideratzen dira".

GAIXO MENTALEN KOPURUA, GORA Gizartean, gaixotasun mentalek duten tokia ere aztertuko dute formazio saioetan. Izan ere, gaixotasun mentalen kopurua gora doa, eta gorakada ez da gelditzen, Mirari Kortaren ustez. Igoera eragin duten faktoreei buruz galdetuta, askotarikoak direla azaldu du: "Eragina du daramagun bizimoduak eta bakoitzaren inguruneak; azken urteotan, droga zehatz batzuen kontsumoak ere eragina du. Bestalde, orain, batzuk oso gazte harrapatzen ditu gaitzak".

Horretaz gain, ikusi behar da gizartean zenbateraino ulertzen eta onartzen ditugun gaixoei. "Trudia, neurri handi baten, negatiboa da. Baina zenbat eta gertuago izan buruko gaitzen bat duen nor edo nor, hurbilago sentiarazten gaitu gaixotasunetik. Gaixo kopurua gero eta handiagoa denez, inguruan ia denok daukagu senide edo lagun bat gaixorik, eta horrek interesa edo jakinmina pizten du", dio Kortak.

Osasun mentaleko boluntario lanari buruzko formazio saioak

Azaroak 8

Osasun mentalari buruzko oinarriko kontzeptuak
Carmen Prades. Psikiatra San Juan de Dios Ospitalean.

Azaroak 15

Osasun mentalak gizartean duen tokia
Conchi Alvarez. Aita Menni Ospitaleko Gizarte Lan departamentuko arduraduna

Azaroak 22

Zer da boluntario izatea? Osasun mentaleko boluntario lanaren zergatia
Mirari Korta eta Roberto Garcia. Boluntarioen lanaren koordinatzaileak Aita Menni eta San Juan de Dios ospitale psikiatrikoetan.

Azaroak 29

Osasun mentaleko boluntarioen esperientziak
Arrasateko eta Eibarko boluntarioak.

Lekua: Kulturate.

Ordua: 18:30-20:30.

Izenematea:

Mugaeguna: Azaroak 6, martitzena.

Lekua: Arrasateko Udal Prebentzio Zerbitzua.

Telefonoa: 943 25 20 07

BORONDATEZ GAIXOEKIN LANEAN

Gaitza gertutik sentitzen duten artean daude borondatez gaixoei laguntzera joaten diren boluntarioak. Aita Mennin, 20 laguneko taldea dabil, eta Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Eibarko jendeak osatzen du; San Juan de Dios Ospitalean, ez dago boluntariorik, nahiz eta bisitan joaten diren noiz edo noiz batzuk.

"Gaixoak erakunde baten barruan bizi dira, eta gehiago igartzen dute bakardadea edo urruntasuna. Hortaz, egoitzak ez diren beste pertsona batzuekin harremanak izateak lagundu egiten die. Gaur egun, boluntarioek gurea moduko ospitaletan egiten duten funtzioa garrantzitsua da adiskidetasun harremanak lantzeko. Boluntarioek ez dute aparteko beste interesik, borondatez laguntzea baino. Positiboa da, bai gaixoendako, ikusten dutelako sortzen diren harremanak modu naturalean egiten direla; baita boluntarioendako ere, esaten dutelako esperientzia polita dela eurenentzat", dio Mirari Kortak.

Astean behin joaten dira, gehienak, martitzenetan, eta euren funtziorik garrantzitsuenak da gaixoekin egotea eta, bakoitzak duen ahalmenaren arabera, ekintzak egitea: jokoan, kantuan, berbetan, paseoan, kafe bat hartuz, urtebetetze ospakizunekin... "Kontua da gaixoen eta boluntarioen elkar ezagutzatik sortzen den harremana lantzea", azaldu digu Mirari Kortak.

TALDE EGONKORRA

Boluntarioen eta gaixoen arteko harremana lantzeko, ekintzak talde giroan egiten dituzte. Boluntarioen koordinatzaileak esan digunez, "taldeak antolatzerakoan, saiatzeko gara gaixoak eta boluntarioak eroso senti daitezten. Boluntario gehienak erretiratuak direnez, erraztasun handiagoa dute adinekoekin egoteko". Boluntarioak, gehienetan, bisitarik gutxien jasotzen dituzten gaixoekin egoten dira, azaldu digu Mirari Kortak: "Hala ere, bisitak jaso arren, boluntarioekin egiten dituzten ekintzekin gustura egoten diren gaixoak badaude. Ez dira bateraezina bisita batzuk eta besteak. Gainera, boluntarioen jarduna hasi aurretik, familiaren eta gaixoen oniritzia behar da".

Oraingo taldean, gehienak erretiratuak eta emakumeak dira. "Taldea egonkorra da, eta orain urte batzuk etortzen hasi ziren. Erretiratuak izanda, bizi-modua egonkortuta dago, eta gorabehera handirik ez dute izaten eguneroko jardunean; hortaz, fidelak dira, eta hartutako konpromisoa betetzen dute luzarotan", dio Mirari Kortak.

Jakin-minez hartzen dituzte gaixoek boluntarioak, baina, ezagututakoan, zain egoten dira noiz etorriko eta, azaldu ezean, pena izaten dutela diosku Kortak.

Boluntarioen lana eskertzea bezain beharrezkoa da. Borondatea ere sendagarri izan daitekeelako.

Serapi Arantzabal > Boluntarioa

"Ospitalera ailegatu orduko gaixoek egiten diguten irribarretxo nahikoa da gu betetzeko"

I.A. > ARRASATE

Angiozarkoa da Serapi Arantzabal, baina Arrasaten bizi da gaur egun, eta Aita Menni Ospitalean buruko gaixotasunak dituztenekin boluntario moduan jarduten du.

Nola erabaki zenuen boluntario izatea Aita Mennin?

Senarrak Alzheimer gaitza izan zuen, eta hiru hilabete eman zituen Aita Mennin ospitaleratuta. Gizona egon nintzen denboran, gaztetatik ezagutzen nuen beste gaixo batekin tratua egin nuen. Gero, gizona hil zenean, lagun batekin hasi nintzen hura bisitatzera joaten, gure kabuz. Gerora sortu zen boluntario modura taldean joateko kontua.

Zer egiten duzue gaixoekin?

Ni neu gizonetako batekin joaten naiz astean behin, eta lau gaixorekin elkartzen gara, karta jokoan jarduteko eta arratsaldea pasatzeko, kafe bat hartuaz. Askotan, ez dute jakiten nondik nora dabiltzan ere, baina gure lana izaten da euren laguntza. Broma artean ibiltzen gara beti, eurak alaitu nahian. Gure taldekoak ez direnek ere ezagutu egiten gaituzte, eta kasu egiten digute beti.

Zein helbururekin joaten zara?

Neure buruarengatik egiten dut boluntario lana; izan ere, ematen dugun baino gehiago hartu egiten dugu. Gure maitasuna ematen diegu eta, triste badaude, umore eta bizitasun pixka bat ere. Eurak gu iristeko zain egoten dira, eta irribarretxo bat egiten digute ailegatu orduko, eta hori nahikoa da guretzako; bete egiten gaitu. Bertako langileekin edo senideekin inoiz haserretu egiten dira gaixoak, baina guri ez digute sekula berba edo keinu zatarririk egin.

Boluntario izateko, zer behar da?

Maitasuna. Norberak eduki behar du maitasun apur bat, besteei eman behar badiegu. Batzuek esaten dute



IRATI AGIRREAZALDEGI

"Gure maitasuna ematen diegu gaixoei eta, triste badaude, umore eta bizitasun pixka bat ere"

"Boluntario lanerako, beharrezkoa da maitasun apur bat izatea, besteei emateko"

buruko gaixoekin lan egitea gogorra dela, baina, niretzat, ez da gogorra; bisitan joan ostean, pozik irteten naiz, inolako barruko kezkarik gabe. Pixkanaka, ohitu egin gara.

Beste elkarte batean ere badiharduzu boluntario, ezta?

Bai, Gipuzkoako Alzheimerdun gaixoen senitarterako Afagi elkartean hasi nintzen senarra gaitzak jota egon zenean, eta orain ere, arduradun lanetan dihardut Arrasaten.

Hartutako Garuneko Kaltea duten gaixoek sorospenak jarraitzea aldarrikatu dute

Hartutako Garuneko Kaltearen Eguna izan zen egubakoitzean, urriaren 26an. Bilbon, egun horren harira egindako mahai-inguru batean, Euskadiko Hartutako Garuneko Kaltearen Elkarten Federazioko ordezkari Jose Maria Abadek gaixoak zaintzeko, birgaitzeko, laneratzeko eta gizarteratzeko baliabide gehiago eskatu zituen. Era berean, Jose Ignacio Quemada, Garuneko Kaltearen Menni Sareko zuzendari medikuak, Garuneko Kaltean aditu espainiarren taldeak egindako lana aurkeztu zuen, eta kalte hori duten gaixoen arazoak azaltzen dira, bide batez, sorospenerako zein laguntzarako bideak eskatuz eurenentzat eta familiendako.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

ELIZA > BEATIFIKAZIOA

Hiru debagoiendar dohatsu aitortu zituen Aita Santuak atzo

Espainiako Gotzain-Batzarrak bultzatutako XX. Mendeko Martiriak delako zerrendan daude Debagoieneko hiru erlijiosoak, errepublikarrek hilak

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Debagoienak hiru dohatsu berri ditu: Zenona Arantzabal Barrutia elgetarra eta Sabino Aiaustui eta Miguel Leibar aretxabaletarrak dohatsu, beato, aitortu zituen atzo Benedictus XVI.a Aita Santuak Erroman.

Espainiako Gotzainen Batzarrak bultzatutako XX. Mendeko Martiriak delako zerrendan daude hirurok; 498 erlijiosok osatzen dute zerrenda hori, eta denak dohatsu aitortu zituzten atzo.

Dohatsu izatea santifikaziorako bigarren pausoa da; dohatsu izateko, Elizak martirioa aitortu behar izan dio pertsona horri. Zenona Arantzabal, Sabino Aiaustui eta Miguel Leibar Espainiako Gerran hil zituzten errepublikarrek, eta hori martirioa dela aitortzen du Elizak.

Beatifikazio ekitaldira gonbidapenak bidali zituen Eliza Katolikoak martirien jaioterrietara. Zenona Arantzabalen kasuan, Elgetako seniderik ez zen joan, bai, ordea, Bilbon, Eibarren eta Madrilén dituen senideak. Berriz, Aretxabaletatik talde polita joan zen autobusez egubakoitzean.



Zenona Arantzabal Barrutia
Elgeta

Madriken izan zen moja, eta hantxe fusilatu zuten

Zenona Arantzabal Arantzeta auzoko Iturri baserrian jaio zen 1878ko uztailaren 9an. 14 urterekin, neskame joan zen Bilbora; nobizia egin zen 1906ko urrian, eta moja ordenatu 1914ko otsailean. Madriken bizi izan zen errepublikarrek komentua konfiskatu arte. 1936ko azaroaren 9an fusilatu zuten, beste 22 mojarekin batera. Almudenako hilerriko hobi arrunt baten ehortzi zuten, baina, gerora, bere arrastoak aurkitu zituzten eta komentuan ehortzi zuten.

Sabino Aiaustui Errasti
Aretxabaleta

Laguntzeko borondate handia zuen irakasle gaztea

Aozaratzako Ojala-Zelai baserrian jaio zen 1911ko abenduaren 29an. Eskoriatzako postulatuari sartu zen 1922an, eta nobizio egin zen 16 urterekin, Marianistekin. Irakasle egin zen.

Donostian, Eskoriatzan eta Madriken irakasle izan zen. Esaten dute ikasleenganako borondate eta laguntzeko gogo handia zuela. 1936an, Madriken zegoen; bi anaiekin etxe baten ezkutuan egon zen, baina atezainak salatu egin zituen. Torturatu egin zituzten, eta irailaren 14an, hil.

Miguel Leibar Garai
Aretxabaleta

Ezkutatuta zeuden erlijiosoen buru izan zen Madriken

Sargarai-Aozaratzan jaio zen 1885eko otsailaren 17an. Marianista egin zen 1903an Eskoriatzan; gero, Gasteizera joan zen. Esanekoa, otzana eta adimen handikoa ei zen.

Txinara, Japoniara, Ameriketara... joan zen, bere ordenak bidalita. Suitzan, Friburgon, ere ikasi zuen, eta han ordenatu zen apaiz, 1915ean. Espainiako Gerra hasita, Madriken ezkutatuta zeuden erlijiosoen buru izan zen, baina 1936ko uztailaren 28an atxilotu eta fusilatu egin zuten.

ELIZA > JARDUNALDIA

Asisko Espiritua gogoratu zuten 300 lagunek

Bakearen aldeko otoitza, biktimen inguruko gogoeta eta bazkaria egin zituzten

L.K. > OÑATI

Euskal Herriko leku askotatik etorritako 300 lagun batu ziren herenegun, zapatua, Arantzazun, Asisko Espiritua gogoratzeko eta ospatzeko hango fraideekin batera. Hain zuzen, Arantzazu Probintziako fraideak eta, batez ere, laikoak joan ziren: Donostiatik hiru autobus gerturatu ziren, adibidez. Bilboko, Gernikako, Iruñeko, Irungo eta Zarauzko jendea ere igo zen.

Aurten, bakearen alde otowitz egin zuten, batik bat. Baina bestelako ekintzak ere izan ziren: hala, Isaac Diezek, ETAREN biktimekin lan egiten duenak, biktimek sufrimenduari aurre egiteko prozesu pertsonalaz gogoeta egin zuten. Hitzaldia entzuten egon zen jende gehien.

Jardunaldiak bukatzeko, bazkaritara geratu ziren berrehun bat lagun Gandiaga Topagunean.

JOAN PAULO II.AK

Joan Paulo II.a Aita Santuak 1986ko urriaren 27an erlijio-arte topaketak egin zituen Asisen; munduko 150 erlijio buruk batera otowitz eta barau egin zuten, Asisko San Frantziskoren filosofiaren bide-tik. Ordutik hona, frantziskotarrek urtero ospatzen dute.

HEZKUNTZA > UNED

UNEDeko matrikulazio kopurua %5,34 igo da

UNED Bergarako zuzendariak jakinarazi zuen gero eta ikasle gehiago dutela; ikasturte irekiera ekitaldian esan zuen

L.K. > BERGARA

UNED unibertsitatearen inguruko bi ekitaldi egon ziren aste bukaeran: batetik, egubakoitz iluntzean, 2007/2008 ikasturtea inauguratzeko ekitaldia egin zuten; zapatu eguerdian, bestetik,

KutxaZabal Debako diplomak banatu zizkieten orain azkeneko promozioiko ikasleei.

IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Jose Ignacio Ansorena *Peter*-rek egin zuen irekiera lektzioa, *Nola esaten da UNED euskaraz? Tradizioa ez da inertzia* izenburuarekin. Gero, datuen unea etorri zen: hala, Juan Jose Alvarez UNEDeko zuzendariak jakinarazi zuenez, 2006/07 ikasturtean %5,34 igo ziren matrikulazioak, eta 1.600 matrikulazio egon ziren guztira. Ikasturte berriari matrikulatzeko aukera dago azaroaren 15era arte; informazio gehiago dago

www.uned.es/ca-bergara webgunean. Ekitaldian, 62 ikasleri diplomak banatu zizkieten.

Alvarez zuzendariak gain, M. Jesus Aranburu Kultura diputatua, Agurne Barruso alkatea, Marta de la Cuesta Plangintza eta Ekonomia errektoreordea eta Kutxako Gizartekintzako Iñaki Almandoz egon ziren ekitaldian.

KUTXAZABAL DEBA

KutxaZabal Debak, Kutxako Gizartekintzako gizarte-laguntzan hezteko eskolak, 06/07 promozioiko ikasleei diplomak banatu zizkien; hain justu, 13 ikasleri. UNEDek ematen ditu eskolok.



'PITER' Peter-ek musikarekin girotu zuen bere irekiera lektzioa.

JOSETXO ARANZABAL

*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Bergarako Udal Artxiboak antolatuta, zinemaren eta historiaren arteko harremana aztertze-

ko hitzaldi sorta egiten dabilta. Vietnamgo gerrak zineman izan duen lekua izan zuten aztergai

joan zen asteko hitzaldian. Ez zuten aztertu Vietnamen gertatutakoa, baizik eta zinegileek

nola imaginatu eta pantailaratu zuten sarraskia. Izan ere, historiak esango du esan beharrekoa.

Iñigo Marzabal > Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea

"Iraganarekiko fideltasunez ala ez, filmek sortu diren gizarteaz dihardute"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Euskal Herriko Unibertsitatean Ikus-entzunezko Narratiba eta Zinemaren Historiako irakasle da Iñigo Marzabal. Hainbat liburu eta artikulu idatzi ditu zinemaren gainean.

Historiak zein toki betetzen du zineman?

David Wark Griffith hizkuntza zinematografikoaren aitak zioen etorkizuneko ikasleek ez zutela historiako liburuen beharrik izango, filmak ikustearekin nahikoa izango zutela. Baiezta-pen horretan, zinemaren hasieratik gaur egunera arte egon den talka adierazten da: historia eta istorioak; mutur batean, bokazio objektiboa duen gaia, eta bestean, egilearen subjektibotasunetik sortzen den kontakizuna.

Iraganean gertatutakoa jasotzeko, fida gaitzeko zinemaz?

Zinemari ez diogu eskatu behar eman ezin duena: iraganari buruzko egia. Baina historiak berma dezake iraganeko gertakarien egia? Iragana objektiboa, finkoa, aldagaitza da, edo aldakorra. Iragana joan da, gertatutakoa denborak irentsi du, ezin da zuzenean harrapatu. Nola hurbiltzen gara egi haietara, diskurtso historikoaren bidez ez bada? Eta diskurtso historikoa historialariak idatzitako kontakizun bat besterik ez da: historia istorio bat da. Historialariak hautatzen dituen ikuspegi eta galderen arabera, aldagaitza zirudiena aldakor bilakatuko da.

Bestalde, ezin dugu ukatu film guztiek duten dimentsio historikoa. Iraganaz fideltasunez hitz egin ala ez, filmek sortu dituen gizarte edo testuinguruaz hitz egiten digute, eta egileen pentsamoldeaz ere: historikoki kokatutako pertsona horrek nola imajinatzen duen iragana.

Zer dela eta aukeratu duzu Vietnamgo Gerra?

Telebistaz eman zuten lehenengoa da; akaso, azkena ere. Ikus-entzunezko lekukotasun asko ditugu, Erromako Imperioaren erorketaz edo Frantziako Iraultzaz ez bezala. Vietnamgo Gerraren inguruan egin diren filmak aztertze abantaila da. Nire begirada beste leku baten kokatzeko aukera ezin hobea dut. Fun-tsean, filma da zinemagileek gizarteaz, gizartea osatzen duten gizabanakoez eta giza harremanetaz duten ikuskeraren isla.



Zinema eta historiaren gaineko emanaldi sortan hitzaldia egin du Iñigo Marzabalek.

GOIENKARIA

HISTORIA

"Historialariaren ikuspegi eta galderen arabera, aldagaitz zirudien iragana aldakor bilakatuko da"

Zein leku du zineman Vietnamgo Gerrak, garaiaren arabera?

1960ko hamarkadatik gaur arte 400 film inguru egin dira Vietnamgo Gerrari buruz, dokumentalak zein fikziozkoak; gehienak, estatubatuarren ikuspegitik. Irizpide kronologikoa erabiliz, lau

VIETNAM

"Oraingo AEBetako zinemagintzarendako, Vietnam abstrakzio bat da, beste erreferente zinematografiko bat"

epetan bana daitezke: lehenengoa, gerra oraindik indarrean zegoen, eta Hollywoodeko estudioek ez zuten gatazkari buruzko interes berezirik adierazi. Batetik, zinema ezin zelako norgeiagoka aritu zuzenean filmatutako irudiak eskaintzen zituen telebistarekin, eta, bestetik,

EUSKAL ZINEMA

"Egungo euskal zinegileek nahiago dute ezaguna zaien garaiko errealtateari buruz aritzea"

AEBetako gizartea bitan banatuta zegoela ikusita, ez zirelako ausartu gai gatazkatsua plazaratzeko. Bigarren epeak gerra amaitu eta hamar urte iraun zuen. AEBetako gizartean, gerraren ondorio traumatikoen inguruko filmak nagusitu ziren. Hirugarren atalean, gatazkaren "egia"

adierazi nahian, gerraren laztasuna, izugarrikeria eta ergeltasuna erakutsi zituzten. Azkenik, denborak Vietnamgo Gerra irentsi duenean, badirudi zauria orbandu dela. Egungo AEBetako zinemagintzarendako, Vietnam abstrakzio bat da, beste erreferente zinematografiko bat, ikuskizun beliko hutsaren euskarria.

Kronologikoki ez ezik, filmak beste irizpide batzuen arabera elkar daitezke: adibidez, gaien eta planteamendu ideologikoen arabera. Talde nagusia film aberkoiek osatuko lukete; bigarrena, gerra hura izan zen infernuaren irudikapena; azkenik, gerraren ondorio traumatikoen eta gudari ohiak bakera moldatzeko arazoengatik inguruko narrazioak.

Zinegileek zeharka hitz egiten dutela diozu.

Artean, eta zinema artea delakoan nago, modu industrialean egindako artea, gutxitan hitz egiten zaigu zuzenean. Zinegileek zeharka adierazten dituzte ideiak: metafora, sinbolo eta ikurren bidez. Istorioak lehentasuna duenez, ikusten eta entzuten dugun guztiak istorioaren garapena bultzatu beharko luke. Baina aurkitu daitezke hainbat elementu, narrazioak izan arren, irakurketa metaforiko bat onartzen dutenak. Eta horretan datza filmaren interesa.

Euskal Herriko historiak zein toki dauka zineman?

Euskal Herriko historia ardatz moduan duten filmen zerrenda oso urria da. Frankismoko isiltasun behartuaren ondoren, 1980ko hamarkadan, hainbat euskal zinegile iraganera begira hasi zen; batetik, izaera biografikoa zuten filmak egin; bestalde, berreraikuntza historikoan. Gehienak orainaren parabola politiko gisa har daitezke. Azkenik, iraganeko kokatutako istorioak direnez, iragana dekoratu huts bihurtzen duten filmak daude. Ikuspegi honetatik, argi daude egungo euskal zinegileen lehentasunak: nahiago dute ezaguna zaien garaiko errealtateari buruz aritu, badaezpada iraganean barneratzea baino, akaso, zinemaren zeregina ez delako hori. Tamalez, gazte askorendako, ikus-entzunezko hedabideak ezagutzat-iturri bakarra dira. Pantailan agertzen ez dena ez bada, zigortuta ote gaude ezagutzen ez dugun iragana erreplikatzera?

oharrak eta deialdiak**ARRASATE**
> Domu Santu egunera-ko autobus zerbitzua

San Cristobal hilerriaren joan-etorria egingo du hiribusak. Urriaren 31n eta azaroaren 1ean egongo da zerbitzu berezi hori. Urriaren 31ko ordutegia izango da 10:00-12:00 eta 15:00-18:00; azaroaren 1ekoa, 10:00-13:00 eta 15:30-18:30.

ARRASATE
> 1942an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute. 12:30ean, meza entzungo dute San Frantzisko elizan, eta gero joango dira bazkaltzera. Izena emateko, deitu, ohi bezala, Mari Carmen Aranbururi.

ARRASATE
> Behin-behineko hiru lanpostu Udalean

Obra teknikari, obra ikuskatzaile eta saneamendu eta mantenuko teknikari lanpostu bana betetzeko deialdia da. Informazio gehiago: www.arrasate-mondragon.org.

ANTZUOLA
> Jaietako euskal ezkontzaren DVDa salgai

Anelkar elkartasun taldeak salgai jarri du uztailearen 14an eta 15ean hainbat herritarrek antzeztu zuten euskal ezkontzaren DVDa. Zazpi euroko prezioan jarri dute salgai, eta eskura daitezke Izar liburu dendan. 50 DVD

kaleratu dituzte. Ezkontzako grabazioaz gain, argazkiek eta soinua bandak osatzen dute DVDa.

BERGARA
> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 10ean egingo dute, Zumelagan. 14:00etatara, argazkia egiteko hitzordua egin dute, olibondoen plaza-txoan. Izena emateko, deitu 943 76 15 88 edo 943 76 22 22 zerbaketara.

BERGARA
> 1945ean jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute, Azpeitxin. Izenematea da 40 euro, Kutxan. Informazio gehiago: 943 76 34 58 (Rosarito).

BERGARA
> 1966an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Torrekuan. Izena emateko, jo Ariznoara azaroaren 19a bai-

no lehen -10 euro aurre-ratu behar dira. Afari egunean, 19:30ean elkar-tuko dira, Ariznoan.

BERGARA
> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute

Zumelaga jatetxean egingo dute, azaroaren 25ean, 14:30ean. Izena emateko, 12 euro aurre-ratu behar dira Euskadiko Kutxan, azaroaren 20a baino lehen.

BERGARA
> 1934an jaiotakoek bazkaria -1955eko kintoak

Azaroaren 11n egingo dute, Zumelagan. 14:00etan, txikiteoa egingo dute, eta baita argazkia atera ere. Bazkaria 14:45ean izango da. Izena emateko, jo Zumelaga jatetxera.

BERGARA
> 1943an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Azpeitxin. Izena emateko, deitu 943

76 16 13 (Arantza Askasibar) edo 943 76 53 22 (Juan Antonio Fernandez) zerbaketara, azaroaren 22aren aurretik.

BERGARA
> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute afaria, Agorrozin tabernan. Gero, dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna azaroaren 15a da. Horretarako, jo Agorrozin tabernara edo ONCEko kioskora.

ARRASATE
> Nortasun agiria egiteko aukera dago BAZen

Urriaren 30ean eta azaroaren 6an eta 28an egingo dute, BAZen. Horretarako, txanda hartu beharko da, BAZen bertan, urriaren 26tik aurrera. Nortasun agiri hori ez da elektronikoa izango.

ARRASATE
> 1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Baster-Alden. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0047 16 0471068086. Izena emateko azken eguna da azaroaren 17a.

BERGARA
> 1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 18an egingo dute, Zumelagan. 13:00etan meza egongo da. Izenematea da Intxortan, sei eurotan.

etxeko leihotik**Leire Kortabarria**

ASTELEHENENGO GOIENKARIAko erredaktore burua

Denboraz eta diruz ondo dabilzanendako luxua

Majinatzen hasita, imajinatu dut zer gertatuko litzatekeen, egunero gure herritik kanpo lanera, ikastera edo dena delakora joan behar izaten dugunok, halako baten, hain justu gure agintariei kasu egin eta garraio publikoa erabiltzea erabakiko bagenu. Bartzelonan AHTko lanen kontura dagoen kaosaren oso urruti ez litzateke geratuko Debagoienekoa, eta albistegi eta egunkari guztietako titularretan egongo gineteke. Oraindik, gure garraio publiko sistema ez da, ezta urrutitik ere, debagoiendarrok merezi duguna.

Oraingo astean bertan irakurle baten partetik jasotako keku batek pentsarazi dit berriz gai honekin; ez nik garraio publikoa sarri erabiltzen dudalako -eta gurako nuke, baina, zorritzarekin, ezin dut horrekin kontaktu- baizik eta, premia dudana bakoitzean eta ingurukoek esanak entzuten ditudanean, benetan konturatzen naizelako zelako gabezia dugun... oraindik. Edo Oñatitik Eskoriatzara joateko Arrasaten transbordoan egin behar izatea eta denetara bost euro ordaindu behar izatea ez da adar-jotze surrealista? Zuek bezain aspertuta nago kontu horretaz berba egiteaz eta entzuteaz, eta deigarria da denbora joan eta oraindak berba izatea garraioa... edo garraio eza.

"Oñatitik Eskoriatzara joateko bost euro ordaintzea adarra jotzea da"**> Tranbiaren proiektua lo dagoen bitartean, nire buruari galdetzen diot ea kalitatezko, maiztasun handiko eta prezio oneko autobus zerbitzuak aseko ez lukeen betebeharririk aseko lukeen tranbiak.****> Ikertu ondoren, ikusi dut Arrasatera edo Bergarara joan-etorriak 2,20 euro kostatzen duen bitartean, Donostiara trenre joan-etorriak, berriz, 1,70 kostatzen duela. Pesako abonuen dira... hiriburuetarako.****debagoiendarrak kanpoan**

Juan Joxe Biain > Oñati

"Etxegarateko lanen ostean, Iruñea eta Oñati arteko bidea erraz egiten da"**IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI**
Iruñera joan zen orain dela hamar urte pasa, ikastera, eta lana ere bertan aurkitu zuenez, han bizi da Juan Joxe Biain gaur egun. Hala ere, sarritan etortzen da Oñatira, etxe-koak bisitatzera.**Noiz joan zinen Iruñera?**

Arkitektura ikastera etorri nintzen, 1995ean. Irakasle izan nituen bi arkitektoaren estudioan hasi nintzen praktiketan 2001ean, eta hantxe jarraitzen dut.

Sarritan etortzen zara Oñatira?

Aste bukaeretan, gehienetan, bueltatxo bat egiten dut. 100 kilometro izan arren bidea, Etxegarateko lanak egin zituztenetik, nahiko erraz egiten da. Ikasle garaian, okerrago ibiltzen nintzen, autobusean batetik bestera.

Oñatiko lagunekin harremana oraindik baduzu?

Gutxi. Beti esan izan dut bi lekutan bizitzea oso zaila dela. Iruñera etorri nintzenez, lehen bi urteetan, batik bat, ez nintzen askotan joaten Oñatira; hilabetean behin-edo. Hortaz, lagun koardrila hemen, Iruñean, daukat. Oñatira, batez ere, familiarengatik joaten naiz.

Oñatiko zerbaiten faltarik sumatzen duzu Iruñean?

Beharbada, Olabarrietako lasaitasuna eta Arantzazu ingurua, pixka bat. Oñati moduko herri batetik etorruta, Iruñea, hiri moduan, atsegina da. Zerbaiten falta sumatzekotan, gehien, familiarena, baina arreba ere Iruñera dago ezkontuta; hortaz, etxe-ko bi gaude hemen.



GOIENKARIA

Arantzazuko lanak

Arkitektoa da eta Arantzazu eraberritzeko proiektuan hartu zuen parte. Maiz etortzen da Oñatira bisitan.

Iruñera joan zinenean, aldaketarik handiena zertan sumatu zenuen?

Dena berria zenez, guztiak harritu ninduen: hiriak berak, ikasketa mailak, lagun berriek... Baina ikasketak luzeak izanda, ni neu ere urtetan aldatuz joan naiz eta, pixkanaka, ohitu egin naiz.

Pentsatu duzu inoiz Oñatira bueltatzea bizi izatera?

Arantzazu eraberritzeko proiektuan parte hartu genuen, eta denbora luzean, Oñatira sarritan joan-etorriak ibili nintzen. Orduan pentsatzen nuen, "Oñatin biziko banintz...". Baina lana Iruñean daukat, lagunak ere, eta noiz edo noiz bururatu arren Oñatira bueltatzea, benetan, ez dut horrekin pentsatu. Oraingoan, Iruñean geratuko naiz.

Jendeak San Ferminetan du Iruñera joateko ohitura. Egun arrunt batean bisitan doanari, zer gomendatuko zenioke?

Oinez ibiltzea hirian barrena, autoan ibiltzea ez delako hain eroso. Hirietan, distantziek luzeagoak dirudite, eta familiakoak bisitan etortzen direnean, batzuetan, kexatu egiten dira, gehiegi ibilarazten diedalako. Baina nik neuk ibilaldia egingo nuke uni-bertsitatean hasita, non berdegune handia dagoen; handik erdi-aldara, zitadela, hura ere, beste berdegune bat; eta bertatik alde zaharrera joan eta hango kaleetan barrena oinez ibiltzea gomendatuko nieke bisitariei. Hiru leku horiek atseginak dira, eta gustuko ditut. Iruñea ere hasi da pixkanaka handitzen, baina oinez ibiltzeko hiri polita da.

kale inkesta

Asteburuon ordu aldaketa izan dugu. Uste duzu zerbaitetarako balio duela horrek?

Jon Betanzos
Langilea
Oñati

Egia esan, nik ez daukat oso argi ordu aldaketa-rekin zerbait aurrezten dugun edo ez; hori argitu egin beharko lukete. Gainera, niretzat, behintzat, gogaikarria izaten da etxeko erlojuak aldatzen ibiltzea.

Elvira Lizarralde
Langilea
Oñati

Nik uste dut ez duela ezertarako balio ordua aldatzeak; nik, behintzat, ez dut ulertzen. Gainera, etxeko kontuetan, ez da aurrerapenik nabaritzen. Nik uste dut ordu bera izan beharko genuela urte guztian.

Igor Korkostegi
Langilea
Oñati

Ez dakit energia aurreratzen dugun edo ez, horri buruzko daturik ez digute ematen-eta. Baina niri ez dit ezertan eragiten ordu aldaketak; hau da, ez zait gogaikarria egiten ordua aldatzen ibili behar hori.

Leire Gonzalo
Ikaslea
Oñati

Egia esan, ez dakit zerbait aurreratzen dugun; etxean, behintzat, ez dugu nabaritzen. Gainera, oraingo aldaketa-rekin, lehenago iluntzen du, eta arratsaldeak motzak geratzen dira. Hori ez zait gustatzen.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Ispiluak Telesforo Aranzadi kalearen parean

Irakurle batek mezu bat helarazi digu Bergarako Udalerri eskerak emanez: "Telesforo Aranzadi kalearen parean errepidera irteko, ispiluak ipini dituzte frontoiaren aldamenean, eta auto gidariei errazten digu ikustea, alde batiatik zein bestetik, autorik datorren ala ez, eta horrela, irten gaitezke autoarekin Ibargarai kalera segurtasun handiagoarekin", esan digu auto gidari honek.

OÑATI

> Oñati-Eskoriatza autobus zerbitzurik ez

Emakume batek bere keza azaldu nahi du Oñatitik Eskoriatzara arteko autobus zerbitzu zuzenik ez dagoelako. "Oñatin autobusa hartu nuen Eskoriatzara joateko asmoz, eta Arrasatera baino ezin izan nuen joan, eta handik beste autobus bat hartu Eskoriatzara iristeko. Gainera, zati bakoitzeko bidaia txartela ordaindu behar izan nuen". Oñatitik Eskoriatzara bitarteko joan-etorria eginez gero, ia bost euro ordaindu behar direla gaineratu du.

ARRASATE

> Santa Ageda auzora bidean auto ilarak

Haserre dagoela esan digu Santa Ageda auzoko bizilagun batek; izan ere, astegunetan, sekulako auto ilarak egoten dira. "Arrasate-tik Santa Agedara bitartean, auto mordoa pilatzen da lantegietara bakoitza bere autoan joaten delako, autobus zerbitzua egon arren. Autobusez joanez gero, trafikoa arindu egingo litzateke".

ustek uste

Mireia Bikuña

Pazientzia kiroldegira sartzeko!

Badira aste batzuk kiroldegira sartzeko tornuak erabiltzen dituguna. Hortaz, badira aste batzuk kiroldegira sartzeko sistema berriaren gaineko kritikak entzuten dituguna, batez ere umeen ikastaroetako orduetan. Kiroldegiko arduradunek umeak aldageletara bakarrik sartzeko eskaera egin dute; eta eskaerak haserre eragin du guraso batzuen artean.

Ilara luzeak sortu ziren hasierako egunetan, txartela etxean ahaztuta utzi zuten batzuek, eta beste batzuek ezin izan zuten hartz-marka erabili. Bada, poliki-poliki, hasi gara sistema berrira ohitzen. Hori bai, oraindik ere ohitu egin behar dugu. Hortaz, guztion onerako den berrikuntzaren aurrean, pazientzia apur bat izatea ez legoke gaizki!

zorroztailea



Markos Balentziaga

Heziketa fisikua

"Soin heziketaren garrantzia aldarrikatu dute dozenaka kirolarik, elkartek, sendagilek, fisioterapeutak, guraso elkartek eta hainbat sindikatuk. Soin Heziketaren Aldeko Taldeak (Sohat) (...) soin heziketako orduak murrizten dituen EAEko curriculum dekretuak aldatzeko eskatu zuen."

Berria > 2007-10-27



Hezkuntza Saillak "Heziketa fisiko"-ko eskola-orduak gutxitzeko asmua dau Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Premiñen arabera, dana dala, eskola bakoitzari beregaintasunez jokatzeko aukeria eskeiniko dotsa.

Asmuak kezka sortu dau kirol-munduan.

Egiza esan, eskolako kirol-orduak gutxitziak ez dau emoten gaurkotasan haundiko erabagixa. Hara:

Kirol-jardueriak lagun arteko harremanak sortzeko eta sendotzeko balio dau; tentsiñuak libratzen ditu; nor bere buruakin gustura egoteko bidaia da. Eta neurritz gaineko pisua dala-eta halako arduria daguan sasoi honetan, neke barik ikusten dogu ezin dala osasuntsua izan eskolako kirol-orduak gutxitzia. Heziketa fisikua, gañera, estresaren kontrako nasaigarria be bada.

Kirolaren eragiña, jakiña danez, aparta da kirolarixen bihozandako eta giharrendako.

Hezkuntzako Sailburu Campos jaunak zelan lortu nahi dau, bihar-etzitan, gaur letxe, Behobiatik Donostiarako ibillera, ttipitapa, ttipitapa, antxitxika bikaiñan biribilduko daben Lehendakariak, eskola-sasoian, horretan zaildu barik? Eskolako kirol-jardunik barik kontsegidu nahi dau Campos jaunak beste Pedro Migel Etxenike bat -Hezkuntza Kontseilari izendakua, gañera! Behobia-Donostia hori bera korritzeko modukua, eta Lehendakariaren aurretik helmugara allegatzeko gauza dana? Andoni Aizpuru, isobara guzti-guztiak kontra eukitta be, zela iritsiko litzake metara, hain fresko eta berritsu eskolan antxitxika egin izen ez baleu?

Ez dakit Campos sailburu jaunaren gogua kirolaren gozamenara emona dan. Badakit, ostera, ardurako erabakixak hotzian hartzia hobe dala beroaldi zoruan baño. Horregatik, lagunkiro, eskatuko neuskio, hankak bero eta burua hotz dittalua -antxitxikaldi baten ondoren, esaterako-, erabagi dagiala eskolako kirol-orduak ez gutxitzia, hau da, harako *mens sana in corpore sano* ekologiko hari eutsi dagixola.

Bizi dogun sasoiak merezi dau.

"Andoni Aizpuru zela iritsiko litzake metara, antxitxika egin izen ez baleu?"

"Eskatuko neuskio Campos jaunari eskolako kirol-orduak ez gutxitzia"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredaktzio Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Maier Uranga Oinarritzko diseinua Goto Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larranaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETAK
20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **BERGARA**
Erretiratuen kultura aste bukaeran, bazkaria egin zuten > 11



> **OÑATI**
Gomiztegiko gaztak lehen saria irabazi zuen Lleidan > 12



> **ESKORIATZA**
Aitor Lajarin artistak 'Lost' erakusketa dauka Gasteizen > 13



> **ELGETA**
Herri Eskolako gimnasioa eta ataria hobetzen dabilta > 14

ARRASATE > AISIALDIA

Ibarreko lehenengo paint-ball gunea zaleak hartzeko gertu dago, Bedoñan

EGURALDIA Urte osoan egongo da zabalik zelaia, baita elurra edo euria egiten badu ere

KIROLA Orain dela 20 urte sortu zen arren, oraindik ez dute kirol kontsideratu paint-balla

JOKALARIAK 18 urtetik azpikoak gutxienez arduradun batekin joan beharko dira

MAIER URANGA > ARRASATE

Arrasateko Bedoña auzoan, ibarreko lehenengo paint-ball gunea ireki berri dute. Oraindik detailtxoren bat falta du gunek, baina zabaltzeko gertu dagoela esan digute hango arduradunek, Iker Garaik eta neska-lagunak.

Paint-balla orain dela 20 urte jaio zen, Ameriketako Estatu Batuetan, eta gurean, apurka-apurka, badabil sartzen arma joko hori. Oraindik kirol kontsideratzen ez duten joko hori, izadiarekin harremanetan egonda, bi talde edo gehiagok pinturazko tiroak elkarri botatzean datza. Estresa eta adrenalina askatzeke erabiltzen du jende askok denborapasa hori, gaur egun. Lagun taldeak, enpresetatik joandako taldeak, ezkongaien agur-taldek eta abar izango dira gehien ibiltzen direnak horrelako guneetan. Jokoaren helburu nagusia bandera lortzea da, eta oso gutxitan izaten dute helburu irabaztea parte-hartzaileek.

SEGURTASUNA

Joko segurua dela esan daiteke, inor gutxi zauritzen da-eta. Tirokatzen diren pintura bolak gelatinazkoak dira, eta segurtasun maskara erabiltzea derrigorrezkoa da, belarriak, begiak eta aurpegia babesteko. Paint-ball guneetan jartzen duten baldintza, hain zuzen ere, segurtasun neurriak errespetatzea eta jolas eremuko erregelak betetzea da.

Erabiltzen den arropa, hasieran, militarra zen; gero, ehizarako erabili izan dutena, eta, gaur egun, diseinu koloretsuak, propio paint-ballerako sortutakoak, erabiltzen dira. Hala ere, jantzie-

kin ez daukagu zertan arduratu, bertan utziko baitzikigute.

Tirokatzen den pintura biodegradagarria da, ez da toxikoa, eta bolak botatzeko aire konprimatuko pistola bereziak erabiltzen dira. Tirokatzeko distantzia minimoa bost metrotan jarri da; beraz, ez dute minik egiten.

ADIN TXIKIKOAK

Adin guztietako jendeak joka dezake paint-ballean. Hala ere, 18 urte baino gutxiago dutenek arduradun batekin joan beharko dira jokatzera. Sarri, gurasoen baimen-orriak eramaten omen dituzte gazteek, baina Arrasatekoan ez da horrelakorik gertatuko; derrigorrean, gutxienez arduradun bat joan beharko da adin txikikoekin.

URTE GUZTIAN

Ez dute neguan ixteko asmorik, ezta udan ere. Askoren ustea izan daiteke eguraldiaren arabera dela paint-ballaren funtzionamendua, baina ez da horrela gertatzen. Euria, elurra edo eguzkia egin, beti egongo da zabalik. Mendian jokatzeko, aire zabalean, eta, akaso, askorentzat traba izango den arren, badago edurraz ere gozatzen duenik ere. Izan ere, gerra-jokoa izanda, egoera txarretan ere gozatu egiten ei da. Oraindik Bedoñako zelaira inor joan ez den arren, ibili da jendea deika, informazio eske. Fagorreko enpresaburuak ere urduri omen daude. Moda-modan dagoen jokoa da enpresaburuen artean, beraz, Arrasate leku ezin hobe izango da, hainbeste lan eta gero, arrasatear bikote horrek sortu duen generako.



DENA GERTU Detaile batzuk falta diren arren, Bedoñako zelaia dagoeneko erabil daiteke paint-ballean ibiltzeko. MAIER URANGA

Iker Garai > Arduraduna

"Uste baino lan handiagoa izan dugu dena antolatzen"

M.U. > ARRASATE

Iker Garai da Arrasaten zabaldu den paint-ball guneko arduraduna. Lursaila zeukanez gero, ideia ona zela iruditu zitzaion ibarrean horrelako zerbitzu bat sortzea.

Asko falta zaizue guztiz irekitzeko?

Ez; jendea animatzea baino ez da falta. Deitaileren bat, akaso, baina ia

gehiena eginda dago, eta kostata, gainera.

Nolatan paint-balla Arrasaten?

Espanian ikusi genuen bat, eta lursail bat neukanez, nahiko erraza iruditu zitzaidan hau guztia aurrera eramatea.

Erraza, benetan?

Hori uste nuen, bai; baina berehala konturatu

ginen uste baino lan handiagoa duela guztia txukun jartzeak.

Ze prezio dauka?

Bakoitzak 25 euro inguru, gutxienez zortziko taldeetan etorrita.

Zenbat tiro?

100. Berriz betetzea sei euro izango da. Horrekin, arratsalde guztia pasatzeke aukera dago.



M.U.

UDALA > IRISGARRITASUN PLANA

Herria zailtasunak dituztenendako egokitze 25,7 milioi ipiniko dituzte

Irisgarritasun plan berria onartu dute, herriko beharrak eta legearen esana aplikatzeko

Hiru arlotan egin dute egoeraren azterketa: espazio publikoetan, eraikin publikoetan eta garraioan

UBANE MADERA > ARRASATE

Oro har, Arrasaten, kalean, eraikin publikoetan eta garraio publikoan irisgarritasuna bermatzeko plana onartu berri du Udalak.

IAZTIK DATORREN EKIMENA

Hirigintza sailak adierazitakoaren arabera, 2006ko irailean abiarazi zuen Udalak ekimena, eta urte bereko urrian adjudikatu zuen proiektua idaztea, Bizgorre S.L. enpresari. Enpresa horrek aurkeztu du plan berria, eta joan den asteko gobernuaren batzarrean onespina jaso zuen.

Arrasateko Udalak lehena-gotik ere bazuen irisgarritasun plana –hau da, zailtasunak dituztenei begira, herriko gune publikoak egokitze plano–, baina hura zaharkitua geratu zen. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzak lege berria ere sortu du,

irisgarritasunaren gainekoa. Hori guztia kontuan hartuta erabaki zuen iaz Udalak plan berria egitea.

GABEZIEN AZTERKETA

Hirigintza sailak jakinarazitakoaren arabera, plan hori egiteko aztertu dituzte zeintzuk diren

Arrasateko gaur egun dituen gabeziak irisgarritasun arloan. Oso plan zehatza dela adierazi dute, xehetasun handiarekin egindakoa. Bestelako artean, Arrasateko 292 kale-zatitan, espaloi, aldapa, zebrabide, jolasgune, seinalizazio, arketa, farola, autobus geltoki eta abar aztertu dituz-

te. Eraikin publikoen egoera ere begiratu dute –udaletxea, kiroldegia, kultura etxea, Amaia antzokia, erretiratuen egoitzak, gazte txokoak....

DIRU GEHIEN, KALEETARAKO

Behin gabeziak zehaztu ondoren, haiek konpontzeko obrak egingo ditu Udalak; baina, orain arte egin duen moduan, zatika joango da egiten egokitze lan horiek, eta lehentasunak zehaztuko ditu horretarako.

Guztira, datozen lau urteotan 25.709.432,13 euroko inbertsioa egin beharra dagoela ikusten du Udalak. Hortik, kopururik handiena kalean lanak egiteko erabiliko dute: 22.730.660 euro; beste 2.854.856 euro, eraikin publikoetan berrikuntzak egiteko, eta 63.363 euro garraio publikoan inbertituko ditu.

LEHENTASUNAK

Lehentasunen arabera egingo dituzte obrak

Irisgarritasuna bermatzeko egokitze obrak zatika egingo ditu Udalak, lehentasunen arabera. Eraikin publikoek dagokienez, hamarrek izango dute lehentasuna: udaletxeak, Monterron jauregiak, kultura etxeak, Amaia antzokia, Iturbide egoitzak, Musakolako eta Iturbideko kiroldegiek, Uarkape frontoiak eta IMIren eta Mankomunitatearen lokalek. Espazio publikoek dagokienez, berriz, ikusi dute zenbait espaloi ez direla nahikoa zabal eta zenbait kale aldapatsuak direla, besteak beste. Garraio publikoari dagokienez, berriz, ikusi dute, besteak beste, Arrasateko autobusaren 24 geralekuetako bat bera ere ez dagoela seinaleztatuta.

AZPIEGITURAK > KALE-ARGI BERRIAK

Kale-argi gehiago ipini behar dituzte Santa Barbara parkean, Gabonak baino lehen

Ziburu-zaburuak dauden gunean eta parke barrutik doan bidetxoan indartuko du Arrasateko Udalak argiteria publikoa, beharra dagoelako

U.M. > ARRASATE

Santa Barbara parkeko argiteria publikoa indartu egingo du Udalak; bestela esanda, farola gehiago ipiniko ditu. Hala onartu zuen joan den astean Tokiko Gobernu Batzarrek.

Moises Altunak, Obren Saileko teknikari buruak, jakinarazi duenez, bi lekutan indartuko dute argiteria: batetik, Otalora kaletik sartuta, Santa Barbara parkearen hasieran, ziburu-zaburuak dauden leku inguruan; eta, bestetik, Otalora kalea eta Arrasate Pasealekua lotzeko parke barrutik doan bidetxoan ipiniko dituzte farola berriak.

HOBEKUNTZA BEHARRA

Altunak adierazi duenez, Udala konturatuta zegoen Santa Barbaran farola gehiago ipintzea komeni zela. Hori horrela, parke ingu-



ZABUAK Umeak jolasean ibiltzen diren gunean ipiniko dituzte farola gehiago. U.M.

ruan ur zikinak batzeko interzeptoreko obrak egin zituztenen, guztia gertu utzi zuten farola berriak sartzeko.

GABONETARAKO, EGINDA

Lehen esandako moduan, proiektu hori onartu egin dute orain, baina oraindik obrak adjudikatu egin beharko ditu Udalak. Las-

ter egin gura dute guztia. "Kontratu txikia da: 30.000 euro inguruko aurrekontua dute obrek. Horregatik, eskaintzak guk eskatuko ditugu, lanak lehenbailehen adjudikatu ahal izateko", azaldu du Moises Altunak. Hark gaineratu duenez, Obra sailaren asmoa da Gabonetarako lan horiek eginda uztea.



ARIZMENDI

Gaztaina Eguna Arizmendin

Urriaren 24an, Gaztaina Eguna ospatu zuten Arizmendiko neska-mutiko gaztetxoek. Urteroko ohiturari jarraituta, Julio Herizek, *aitaita Julio*-k, gaztainak erretzen zizkien bitartean, umeak haren bueltan ibili ziren dantzan eta kantuan. Gero, guztiek gaztainak jan zituzten; hori bai, gaztaina batzuk gurasoendako gorde ostean.

> KULTURA

Bi belaunaldi batuko dira, ahozko literatura eta antzinako kontuak berreskuratzeko

Joan den urriaren 24an, liburutegien eguna izan zen. Egun horren harira, ekimen berezia antolatu dute: bi belaunaldi elkartzeko saioa egin gura dute liburutegian. Gaur, 15:00etan, batuko da 6 urteko ume talde bat eta Iturbide Egoitzako 8-10 nagusi. "Batzuk besteei antzinako ipuinak, poemaren bat, aho korapiloak, garai batean eskolatik irten eta zer egiten zuten, gerra zela bizi zuten... bizitzak emandako esperientzia eta eskarmentua izango dute hizpide. Adinean aurrera doazen pertsona nagusi horiek egungo umei erakutsiko diete oroimenean gordeta dituzten harri bitxiak", azaldu du Asun Agirianok, Haur eta Gazte Bibliotekaren arduradunak.



PINTXOAK Pintxo lehiaketan herriko taberne hartuko dute parte. Osagarri nagusia patata izan beharko da. IMANOL SORIANO

GIZARTEA > ELKARTE GASTRONOMIKOAK

Patata feria eta pintxo lehiaketa, azaroaren 24an

Pintxo lehiaketa herriko tabernen artean eta sukaldaritzakoa elkarte gastronomikoei zuzenduta

EDU MENDIBIL > BERGARA

San Antonioko Gure Ametsa elkarteak antolatuta, patata feria eta pintxo lehiaketa izango ditugu Bergaran, datorren hilaren 24an. Pintxo lehiaketan Bergarako taberne hartuko dute parte eta, betiere, pintxoak egiteko orduan, patata izango da osagarri nagusia. Besteak beste,

aurkezpena, originaltasuna, osaketa eta zaporea kontuan izango dituzte epaimahaiak. Antolatzaileek 2,5 kiloko patata poltsa bana emanango diete partaideei, eta gainerako osagarriak haien kontura izango dira. Hiru onenentzat sariak izango dira. Izenematea azaroaren 17ra arte dago zabalik, 648 01 32 40 (Jesus Jauregi) zenbakian.

PATATA FERIA

Egunean bertan izango da patata feria San Antonioko plazatxoan. 12 patata mota erakutsiko dituzte, eta beste hainbat ekitaldi izango dira, tartean, herriko elkarte gastronomikoen arteko patata saltsa berdean lehiaketa.

Rafael Garitano zenaren oronemenez izango dira ekitaldiok. Argantzun jaioa, Santa Marinako parrokoa izan zen 21 urtez, 1784an hil zen arte. Patataren gainean hainbat ikerketa egin zituen.

EMAKUMEA > LEHIAKETA

Kartel lehiaketa deitu du BEKE emakumeen elkarteak

Emakumearen aurkako indarkeria salatzea da helburua; hitzaldia izango da azaroaren 20an

roaren 20ra arte izango da zabalik, kultura etxean. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzeldean ezizen bat dutela aurkeztu behar dira kartelok. Sobre itxi batean, egilearen datuak zehaztuko dira. Irabazleak 200 euro jasoko ditu. Sari banaketa ekitaldia Pol-Pol tabernan egingo dute azaroaren 25ean, 19:00etan.

E.M. > BERGARA

Datorren azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria salatzeke egingo den nazioarteko egunari begira, Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak (BEKE) kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan, 15 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

Lanak, kolore eta teknika libreak eginak, 50x35 cm-ko kartozko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Derrigorrezko testua *Emakumearen aurkako indarkeriarik ez!* izango da. Lanak entregatzeko epea aza-

CIUDAD JUAREZ

Koro Iraegi BEKEko kidearen hitzetan, "orain dela hiru urte hasi ginen lehiaketarekin, batik batik, gazteen artean sentsibilizazioa pizteko". BEKEren eskutik, Ciudad Juarezko bi amak eta Nati Gutierrez psikologoak hitzaldia egingo dute hilaren 20an, Miguel Altunako aretoan, 20:00etan. Hildako bi gazteren amak dira Elia Escobedo eta Julia Esther Cano mexikarrak, eta Ciudad Juarezko feminizazioa da hitzaldiaren izenburua.



INDARKERIA Emakumeen aurkako indarkeria salatzea da helburua. BEKE



JOSETXO ARANZABAL

Ehun erretiratu elkartu ziren bazkaritara

Begarako erretiratuek Kultur Hamabostaldia bukatu zuten atzo, Zabala jatetxean. Han egindako bazkarian, 100 lagun inguru elkartu ziren, eta giro bikaina izan zuten. Bazkalostean, 15 opari zozketatu zituzten eta dantzaldia izan zuten 19:00ak arte. Aurtengo hamabostaldia arrakastatsua izan da, San Joxepeko zuzendaritzako kideen ustetan. Jende dezente parte

hartu du antolatutako ekitaldietan, eta nabarmentzeko izan da gaztetxoaren partetik jasotako erantzuna: hala, ikasleendako antolatutako lehiaketan, 237 lan jaso zituzten. Hain zuzen ere, belaunaldien arteko topaketa da hamabostaldiaren helburuetako bat. Ikasturtea aurrera joan ahala, datorren urtekoa hasiko dira gertatzen San Joxepeko lagunak.

> UDALA

Udalaren egutegian publizitatea egiteko deia egin dute

Udalak 2008ko egutegia ateratzeko asmoa duela eta, bertan publizitatea jarri nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxe eta abarrei dei egiten die. Egutegia 2007koaren tankerakoa izango da. Publizitatea jartzeko interesa dutenek Udako Euskara Zerbitzura (943 77 91 71) jo dezakete.

> ODOL-ATERATZEA

Odola emateko aukera dago etzi Seminarioan

Begarako Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, etzi, eguaztena, odol-ateratzeak egingo dituzte Seminarioko lokalean, ohiko ordutegian, 18:30ean hasita, hain zuzen ere.

Bestalde, azaroan beste bi odol-ateratze egingo dituzte: hilaren 14an eta 28an.

UDALA > ZERGAK

Zaborraren tasa ehuneko 13,9 igoko da urtarrilean, eta urarena, ehuneko 8,77

Aho batez onartu zituen udalbatzak 2008ko zerga ordenantzen aldaketa proposamenak

Kalegoieneko eta kiroldegiko aparkaleku publikoetako tarifak ere onartu zituen Udalak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

2008ko zerga ordenantza izan zen joan den astean egindako urriko osoko bilkuran adostu zuten gailetako bat. Ogasun batzordeak egindako proposamenak aho batez onartu zituzten EAJko eta Oñati Ezkerretik koalizioko zinegotzietatik. Hala, datorren urteko zerga gehienek %3,2ko igoera izango dute, baina badago salbuespenik.

URA ETA ZABORRA

Uraren eta zaborraren tasek orokorrean aplikatuko den igoera hori oso goitik apurtzen dute. Ur tasaren kasuan, Gipuzkoako Ur Partzuergoak urari altan ezartzen dion igoera berbera aplikatzea onartu da. Hala, datorren urtean, ur tasak ehuneko 8,77ko igoera izango du.

Zaborraren tasaren kasuan, zerbitzua eskaintzen duen Debagoieneko Mankomunitateak proposatutako igoera onartu da. Hortaz, zabor tasak %13,9ko igoera izango du. Kasu horretan, erreferentzia modura zerbitzua eskaintzen duen Mankomunitate

tea hartu da. Hala, zabor tasari %13,9ko igoera aplikatzea proposatu zitzaizen Mankomunitatea osatzen duten udal guztiei, eta onartu egin da.

APARKALEKU PUBLIKOAK

Kiroldegiko eta Kalegoieneko aparkalekuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak ere urriko osoko bilkuran onartu zituzten. Hala, lehenengo 30 minutuetan aparkalekuak doan izango dira, eta 31. minututik ordaintzen hasiko da.

Udalbatzak onartu dituen tarifaren arabera, 31. minututik aurrera, minutuko 0,0133 euro ordaindu beharko dute erabiltzaileek. Autoa bost ordu baino

gehiago aparkatuta utziz gero, minutuko prezioa garestitu egingo da, bosgarren ordutik aurrera, minutuko 0,0167 euro ordaindu beharko da-eta.

Gauean bi parkinak erabiltzeko aukera eman gura izan du Udalak. Hala, gaueko bederatzietatik goizeko bederatzietara arte autoa aparkatzeagatik, 50 euroko abonua onartu dira.

Txartel barik aparkatzea edo ordaindu barik joatea 50 euroko isunarekin zigortuko da.

UDALEKUAK ETA KIROLDEGIA

Kiroldegiko urteko abonua eta udalekuetako izenemateak ere igoera garrantzitsua izango dute.

Hala, uztaileko udalekuak ehuneko 7,14ko igoera izango dute; hortaz, izenematea 60 eurokoa izango da. Halaber, kiroldegiko urteko abonua ere igoera izango du. Bailarako kiroldegi gehienek prezio garestiagoak dituztenez, eta txartel amankomunatuak zentzua izateko, ehuneko 10 igoko da kiroldegiko tasa.

Makinetan prezioak finkatu arte, parkinak, doan

Joan den asteko osoko bilkuran onartu ziren Kalegoieneko eta kiroldegiko aparkalekuetako tarifak. Bada, tarifak bi aparkalekuak sarreretan jarri diren makinetara egokitu behar dira. Argazkian ikusten den moduan, oraindik ez dituzte txartelak sartzeko makinak jartzeko lanak bukatu, eta haiek erabiltzeko moduan ez dauden artean, aparkalekuak doan izango dira. "Oraindik ez dakigu noiz egongo diren makinak martxan", esan zigun Lurdes Idoiaga alkateak, "baina azaroan izango da".



Kiroldegiko aparkalekuaren sarreran, oraindutako txartelak sartzeko makinak jartzten dabilta.

MIREIA BIKUÑA

Gomiztegiko gaztak saria jaso zuen Lleidan

Gomiztegiko gaztak Lleidako La Seu d'Urgell herrian jokatu zen 13. Pirinioetako Artisanu Gazten Lehiaketan irabazi du lehenengo saria, ardi latxaren esne gordinaz egindako gazta batekin. Arantzazuko Gomiztegi Kooperatibak maiatzaren 28an egindako gazta aurkeztu zuen lehiaketara.

Lleidan jokatuak lehiaketan, Katalunia, Aragoi, Euskal Herria eta Frantziako Pirinioetako 35 gaztagilek parte hartu dute. Hala, Gomiztegiko arduradunak "oso pozik" daude Katalunia aldean lortutako sariarekin.

Ez da lehen saria Gomiztegiko gaztagileendako, eta gehiagoren bila jarraituko dute, izan ere, azaroan, Gernikako azokan parte hartzeko asmoa azaldu digute.



GOIENKARIA

HITZALDIA

Autonomoen lege berria azalduko du Txandak

M.B. > OÑATI

Txanda merkatarien elkarrekin dendariendako bi hitzaldi iragarri ditu azarorako. Hala, batetik, autonomoendako lege berriaren inguruan hitz egingo dute Global Alians enpresako ordezkariak. Azaroaren 6rako eta 8rako iragarritzen diren mintegietan, lege berriaren ezaugarriak, autonomoek izango dituzten onurak, eta beste hainbat kontu azalduko dira.

ARRATSALDEZ

Dendariendako mintegiak direnez, hitzaldiok arratsaldeko zortziak eta laurdenetan izango dira, Santa Ana antzokian. Mintegiak espainolez izango dira.

IKASTAROA

Defentsa pertsonalari buruzko ikastaroa

M.B. > OÑATI

Aloña Mendi Karate sailak defentsa pertsonaleko hainbat ikastaro antolatuta ditu, azaro, otsail, eta maiatzarako. Ikastaro horietan parte hartzeko izenematea kiroldegia egin behar da. Matrikula 15 euro ordaindu behar da.

Ikastaroa bi taldetan banatuko da; hala, talde bat karatea egiten duten lagunek osatuko dute, eta beste taldea, eraso baten aurrean nola jokatu ikasi gura dutenek.

IRAKASLEA

Jon Bilbao izango da ikastaro horietako irakaslea. Karate Shotokan-eko 6. Dan maila du, eta Goshin-Defentsa Pertsonaleko 2. Dan-a.

ESKORIATZA

Aitor Lajarin > Artista

"Istorio bat egin baino gehiago, desegin egin dut 'Lost' erakusketan"

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Jaiotzez gasteiztarra den arren, orain zortzi urtera arte Eskoriatzan bizi izan zen Aitor Lajarin artista. Azkenaldian, Bartzelonan bizi izan da, baina Gasteizen erakusketa egiteko tarte ere izan du: azaroaren 2ra arte, Trayecto Galerian (Pauleko San Vicente, 21).

Zelan sortu zen erakusketa hori egiteko aukera?

Trayecto Galeria aretoko artista naiz; areto horrek ordezkatzeko nau, eta, noizean behin, erakusketak egiten ditugu hango artistok. Hortaz, areto horretan estreinatutako erakusketa da honakoa, *Lost*.

Istoria bat kontatzen duzu erakusketa horretan, ezta?

Erakusketa hainbat piezak osatzen dute: instalazio handi bat, argazkiak, margolanak... eta kontakizun orokor baten zatiak dira, baina kontakizun horren haria ez daki ikusleak. Hortaz, berak pieza horiek batu egiten ditu eta kontakizun antzeko bat osatzen du.

Istoria sorrarazi egiten da, hortaz?

Bai, hori da helburua. Izan ere, kontakizun baten osagaiak

ematen dizkiot ikusleari: lekuak, pertsonaiak, gauzak... baina egitura ez daki zein den. Kontakizuna egin baino gehiago, desegin egin dut. Horretarako, margolanak, bideoak... erabili ditut. Elementu nagusia 8x2,5 metro inguruko pieza bat da, eta muntaia-ko beste elementuen korapilo lana egiten du.

Zure burua margolari gisa aurkezten duzu, baina, hemen, adibidez, beste arlo asko ukitu dituzu...

Artista moduan, margotzen hasi nintzen; baina, denborarekin, interesatzen zaizkidan beste alor batzuetan ere ibili naiz, eta horiek nire lanean sartu ditut, hala nola, bideoa, argazkilaritza... Bat ez zait besteak baino

gehiago interesatzen; ideiak interesatzen zaizkit, eta gero, bakoitza zelan egin pentsatzen dut.

Zerk inspiratzen zaitu?

Iturri asko ditut, baina zinema, adibidez, oso erreferentzia garrantzitsua da niretako. Baditut zinegile gogoko batzuk, baina ez dut izenik esango, gero esango dutelako bakarrik horiekin fijaszen naizela (barre). Irakurtzen dudanak, bidaietan ikusten ditudanak... ere eragiten didate, jakina.

Ze beste proiektu dituzu?

Urtarrilean, Artiumen beka batekin, Los Angelesera noa, zazpi edo zortzi bat hilerako; hango hirigintza eta han giza harremanak zelakoak diren aztertuko dut. Gero, Valentziako azoka, Arco... daude. Zorionez, proiektu faltarik ez daukat.

Musikari ere bazara, ezta? Danbaka lehiaketara ere aurkeztu zinen zure taldearekin.

Bai, bateria eta gitarra jotzen ditut; baina, hori bai, zaletasun hutsa da. Danbakan ez gintuzten aukeratu; oso txarrak izango ginen, nonbait (barre). Orain, edozelan ere, alde batera utzita daukat musika.

"Margoak, argazkiak, bideoa... ez dut bat gogokoago; ideiak interesatzen zaizkit"

"Urtarrilean, Los Angelesera noa, hango hirigintza eta giza harremanak aztertzeraz"



Aitor Lajarin gasteiztarra da sortzez, baina eskoriatzarra historiari.

GOIENKARIA

ARETXABALETA > TALDEAK

Akordeoi Orkestrakoak Mexikora doaz etzi, eguaztena, hango Euskal Etxeak gonbidatuta

Mexiko hiriburuko Euskal Etxea mendeurrena ospatzen dabil, eta kontzertuak emateko eskatu dio Orkestrari



ORKESTRA Akordeoi Orkestra, entsegu batean.

ARTXIBOA

L.K. > ARETXABALETA

Akordeoi Orkestrako 22 kide eta bost senide Mexiko hiriburura joango dira etzi, eguaztena, hango Euskal Etxeak bere mendeurren gonbidatuta.

Hemezortzi akordeoilari, bi perkusio-jole, zuzendaria, presidentea eta bost senitarteko joango dira Mexikoko hiriburura. Kide gazteenak 16 urte ditu, eta zaharrenak, 26. Urriaren 31n abiatu eta 14an izango dira bueltan. Mexikoko Euskal Etxean eta unibertsitatean joko dute, eta

hiriburu inguruko Queretaro eta Valle del Bravo hirietan ere.

GUSTUKO DOINUAK

Orain hiru urte izan ziren orkestrakoak Mexikon; hango Euskal

Etzekoei gustatu egin zitzaizen emanaldia, eta aurten, gonbidatu egin dituzte. Denetarik joko dute: euskal eta mexikar musika, klasikoa, eliza doinuak, zarzuelak....

ARETXABALETA > UDALA

Mugikortasun Plana esleitu dute

Bestalde, ezohiko osokoa dago gaur, Elkarbizitzaren eta Denon Giza-Eskubideen Defentsa eta Aldarrikapen mozioa aztertzeko

L.K. > ARETXABALETA

Udalak esleitu du mugikortasun eta garraio plana egiteko kontratua: Endara etxeak egingo du, eta horretarako, 28.000 euroko aurrekontua izango du. Zehazkiago, Juan Ramon Lombera arkitektoak egingo du azterlana. Lau hilabeteko epea izango dute esleipendunek.

Lomberak plan orokorrarekin koordinatu beharko du lana.

TRAFIKOA, TRANBIA...

Kontuan hartu beharreko helburuak hauek dira: trafikoa zelan antolatu; aparkalekuak aztertzea; tranbiaren ibilbidea

ren gaur egungo proposamena aztertzea eta hari alternatiba posibleak; erdiko ardatzak oinezkoendako uzteko aukera, eta, akaso, beste kale batzuk; herriko merkataritza bultzatzea; eta S-2b sektore berriko autoendako bideen eta oinezkoendakoen lotura hobetzea.

EZOHIKO OSOKO BILKURA

Udal kontuekin jarraituz, gaur, 18:00etan, ezohiko osokoa egingo du udalbatzak, Aretxabaleta-ko Herriarren Elkarbizitzaren eta Denon Giza-Eskubideen Defentsa eta Aldarrikapen mozioa aztertzeko.

ELGETA > LANAK

Eskolako jolastokia eta ataria hobetu egingo dituzte

Lehen Hezkuntzako umeen jolastokia handitzeko lanak hasita daude, eta gero, eskola atarian apurtuta dauden baldosak konponduko dituzte

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Aurreko agintalditik datorren egitasmoa da honakoa. Lehen Hezkuntzako umeen jolastokia handitzeko lanak hasiak ditu Udalak. Jarraian, uneotan itxura eskasa ematen duen Herri Eskolako atarian konponduko dute. Apurtuta dauden baldosak ipiniko dituzte, eta horrelakorik berriz ez gertatzeko, pibotak jarriko dituzte, autoak bertaraino sartu ez daitezzen. Lan horiek azaro amaierarako amaituta egotea aurreikusten dute udal arduradunek. Aurrekontua 12.000 eurokoa da.

LUDOTEKARAKO IZENEMATEAK

Udalak, bestalde, gogorarazten du zabalik dagoela ludoteka zerbitzuan izena emateko epea.

Zerbitzua 2-12 urte bitarteko umei zuzenduta dago, eta azaroaren 6tik apirilaren 30era egongo da martxan, astelehenetik barikura bitartean. Izenemate epea azaroaren 5era arte egongo da zabalik, eta interesatuek udal txeko kultura teknikariarengana jo behar dute. Udalak jakinarazi du ume txikien bila eskolara joateko zerbitzua ere eskainiko duela.



KONPONKETAK Herri Eskolako sarrera konpondu eta pibotak jarriko ditu Udalak.

LARRAITZ ZEBERIO

ARAMAIO

Auzo alkateen batzordea eratu dute

Nardeagan eta Ibargoian auzo alkateak izendatuko dituzte laster

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaioko Udala eguenean bildu zen lehen aldiz izendatu berri diren auzo alkateekin. Modu horretara, auzo alkateen batzordea eratu dute, eta asmoa da urtean hiru edo lau bider elkartzea. Udala pozik dago bilerak emandako emaitzarekin. Udalbatza berriak Udalaren eta auzo alkateen elkarlana sustatu nahi du batzorde horren bitartez, eta auzo alkate guztiek begi onez ikusi dute batzorde horren sorrera. Laster, berriz elkartuko dira guztiak, auzo bakoitzaren egoeraz hitz egiteko.

Azkeneko osoko bilkuran onartu zen Nardeaga eta Ibargoia kaleetan auzo alkaeak izendatzea. Datorren astean egingo dute alkateak izendatzeko deialdia.

ARAMAIO

KZGunea, hilaren 12an eta 26an zabalik

Internet erabiltzen ikasteko hiru ikastaro egin ahalko dira KZGunean

A.B. > ARAMAIO

Azaroan bi egunetan bisitatu du dinamizatzaileak KZGunea: hilaren 12an eta 26an. Egun horietan, arratsaldeko bostetatik zazpi eta erdiak arte, Interneten nabigatzeko aukera egongo da, dinamizatzaile barik. Bestetik, KZGunean egiten diren ikastaroetan parte hartu nahi dutenek egun horietan, arratsaldean, KZGunean joan besterik ez dute egin behar.

Internet erabiltzen ikasteko hiru ikastaro antolatu dituzte oraingo hilabetean. Horietako bi 20 ordukoak izango dira, eta bestea, 10ekoa. Hurrengo hilabeteetarako prestatzen ari diren ikastaroen berri izan nahi duenak www.curso.kzgunea.net webgunera jo dezake.



GAZTAINAK Fruitu lehorrak jateko batuko dira erretiratuak.

ARTXIBOA

ANTZUOLA > ERRETIRATUAK

Gaztaina-jana, irteera eta hitzaldia erretiratuendako

Azaroako kultura eta aisialdi egitaraua gertatuta daukate erretiratuak

LEIRE KORTABARRIA > ANTZUOLA

Herriko erretiratuak ekintzaz betetako hilabetea izango dute. Egitaraua antolatu dute, eta izena emateko egunak eta ordutegia ere finkatu dituzte; ekin-tza bakoitzak bere izenemate egunak ditu, baina denak euren egoitzan dira.

Hala, hasteko, azaroaren 15ean, eguena, gaztaina-jana egingo dute Olanan etxean, 19:00etan; izenematea azaroaren 5etik 8ra izango da, 15:00etatik 18:00etara.

Hilaren 20an eta 21ean, Gabonetako loteria salduko dute, 18:00etatik 19:00etara, 5 eurotan.

Azaroaren 22an, egun erdiko irteera egingo dute Mutrikura. 12an edo 13an eman behar da izena, 10 euroren truke.

Azkenik, hitzaldi bat ere antolatu dute, eta zehaztuko dituzte gaia, eguna eta ordua.

LEINTZ GATZAGA

Autoen zerga eta egurra ez igotzea onartu du Udalak

Zaborra %14 igoko dute eta gainerako zerga eta Udal tasak KPI, hau da, %2,7

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Eguenean, hilak 25, egindako ezhoiko osoko bilkuran onartu zituzten datorren urteko Udal tasa eta zergen goerak. Zaborra %14 igoko dute, Sasietako Mankomunitateak garestitu egin duela zerbitzua. Ura, argindarra eta potentzia handiko automobilen zerga KPI igoko dituzte, eta %2,7 izatea erabaki zuten.

Zerga batzuk ez dituzte igoko: egurra eta automobil txikien zerga. Horren arrazoia eman digu Eusebio Villar alkateak: "Gatzagan, guztiok behar dugu auto txiki bat, garraio publiko eskasa delako". Egurrari dagokionean, azaldu digu gero eta herritar gutxiagok erosten duela, eta prezioa mantentzea erabaki dutela. Udalak bakanketak egin behar ditu basoan, eta gero, egur horri irtenbidea eman behar dio.

Kirola



> **FUTBOLA**
Lehenengo erregional mailan, UDAK berdindu egin du > 16



> **ESKUBALOIA**
Bergarak lehenengo garaipena lortu du aurtengo ligan > 18



> **SASKIBALOIA**
Mondragon Unibertsitateak irabazi egin zion Legarciari > 20



> **MENDIA**
J. R. Fernandezek Besaideren gaineko liburua idatzi du > 22

PILOTA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Txapela Debagoienera ekartzea izango da aurten ere ametsa

ARRASATE

Iaz egindakoa errepikatzea zaila den arren, maila polita ematen ari dira

PALA MOTZA

Ibarreko guztiek eskuz jokatzen duten arren, Antzuolako bi talde palan ari dira

A.E./M.B. > BERGARA

Debagoiena ondo ordezkaturik dago Gipuzkoako Pilota Txapelketan; gure ibarreko ia herri guztiek dute ordezkari bat lehian. Iaz, Arrasate izan zen txapeliduna; hala, ikusmin berezia sortu du txapelketak aurten.

ARRASATE, FAVORITEN ARTEAN

Txapela defendatzea egokituko zaie aurten Arrasateko pilotariari. Iazko taldea zerbait aldatu dute arrasatearrek: hala, nagusien mailan, Dominguez eta Jimenez dabilta lehian. Eskuz banaka dabil, berriz, Egoitz Uribarren; gainera, oso maila ona ematen dabil. Iaz Unai Axperekin osatu zuen bikotea Uribarrenek baina, aurten, Tolosako taldean dabil Axpe.

Gaspe mailan, Ibai Bolinaga eskuz banaka dabil; aurten, denboraldi borobila jokatzen dabil arrasatearra, baina Mauri Zubillaga entrenatzaileak badaki zaila izango dela iazkoa errepikatzea: "Iazko bezala egonez gero, baliteke irabaztea, baina, horretarako, ez dugu lesiorik izan behar", esan du. Martxoan edo apirilean ondo egotea komeni dela azpimarratu du Zubillagak.

BERGARARRAK, AZKEN FASEAN

Reyes Azkoitiak azken fasera iristea du helburu. "Gainera, 2. mailan dauden Muguruza eta Larrañagak 1. mailara igotzea izango dute helburu", gaineratu du Bergarako entrenatzaileak. Bestalde, gazte eta kadete maila-



ARRASATE Argazkian, Iker Agirregabiria Arrasateko pilotaria, Uarkapen, jokoan.

JOSETXO ARANZABAL

ko pilotarien maila ona dela esan digu Azkoitiak.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taldeen helburua ere mailaz igotzea da; hala, Aretxabaletan, nagusietan, 1. mailara igotzea da helburua, eta Eskoriatzan, 3. mailatik 2. mailara pasatzea.

Antzuolako Olalde elkarteak txapelketa ona jokatu eta bigarren fasera sailkatzea du helburu; gainera, pala motzean ere badihardute Olaldeko pilotariak.

DIARIO VASCO TXAPELKETA

Ezusteko garaipena Jaunarenak eta Bolinagak

Beste ezusteko bat eman zuten Jon Jaunarenak eta Ibai Bolinagak Diario Vasco Txapelketako promesen mailan: zapatuan, Errenterian jokatutako kanporaketan, Iturriotz eta Galartza hartu zituzten mendean (22-8). Leitzako eta Arrasateko jokalariek osatzen duten bikoteak, kadete mailakoa izan arren, joko ona erakutsi zuen. Halaber, Galartza atzelariak ez zuen zaleek espero zuten maila erakutsi.

Zapatuko kanporaketa gaingitu ondoren, Jaunarenak eta Bolinagak final laurdenetako lehia jokatuko dute zapatuan, Getarian. Partidua Garralda-Diez txapelketa-buruen aurka jokatuko dute.

Ibarreko taldeak

ARRASATE

NAGUSIAK

Eskuz binaka: Dominguez-Jimenez

Eskuz banaka: Uribarren

JUBENILAK

Eskuz banaka: Bolinaga

Eskuz binaka: Agirregabiria-Zubizarreta

KADETEAK

Eskuz binaka: Arabaolaza-Etxagibel

Arana-Goitia

BERGARA

NAGUSIAK

Eskuz binaka: Muguruza-Gutierrez

Eskuz binaka: Muguruza-Larrañaga

Eskuz banaka: Herranz

JUBENILAK

Eskuz binaka: Larreategi-Irizar

Eskuz banaka: Rezusta

KADETEAK

Eskuz binaka: Iturbe-Fernandez-Zabalo

Eskuz binaka: Resuzta-Diez-Osa

ESKORIATZA

NAGUSIAK

Eskuz binaka: Oion-Iñurategi-Gracia-Perez de Apodaca

JUBENILAK

Eskuz binaka: Oiarzabal-Agiriano-Luarizaristi

KADETEAK

Eskuz binaka: Urrutia-J. Zubizarreta-M. Zubizarreta-Herrarte

Eskuz binaka: J. Zubizarreta (titularra) eta M. Zubizarreta

ARETXABALETA

NAGUSIAK

Eskuz binaka: Gardoki-Uribarren-Perez de Labeaga

JUBENILAK

Eskuz binaka: Alzola-Oion-Urriarte-Lasagabaster

KADETEAK

Eskuz binaka: Etxeberria-Urrutia

ANTZUOLA, OLALDE

NAGUSIAK

Eskuz binaka: Mendizabal-Azkarate-Agirre-Biteri-Muruamendiaraz

Pala motzean: Zabalo-Mauso

Pala motzean: Zabalo-Iturbe

PREFERENTE MAILA > UDA-TRINTXERPE

Penaltiz eta azkeneko minutuan berdindu zuen lehia Trintxerpek

UDA

1-1

TRINTXERPE

UDA > Elgarresta, Uribetxeberria, Garai, Astola, Iturbe, Lopez, Orueta (Dublan, 85. min.), Igartua, Arriaga (Arana, 80. min.), David Espinosa (Erico, 75. min.), Ivan Espinosa (Rodriguez, 55. min.).

Trintxerpe > Urrutia, Carrizo, Oizartun, Diaz, Gonzalez, Hidalgo, Iza (Santiago, 55. min.), Varela, Vila (Garcia, 55. min.), Perez, Caminaur.

Bestelakoak > Jende gutxi ibarran.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABAETA

Bigarren zati guztia markagailuan aurretik joan ondoren, UDAK azkeneko minutuan jaso zuen berdinketaren gola; penaltiz izan zen. Modu horretan, puntu bakarra geratu zen Ibarra futbol zelaian.

ZELAI ERDIAREN JABE

Bi taldeek nahiko joko parekatua egin zuten eta, ez UDA eta ez Trintxerpe ere, ez ziren zelai erdiaren jabe egin.

UDAK bi gol aukera garbi izan zituen. Lehenengoan, Igor Arriagaren jaurtiketak zutoina jo zuen, 20. minutuan. Bigarrenean, baloi luzea David Espinosak jaso zuen, baina atezainaren aurrean huts egin zuten UDAko jokalariek.

Hortaz, berdinketarekin joan ziren aldagelatar bi taldeak. Bigarren zatian, partidua bizitu egin



ERASOA Iker Orueta erasoko jokaldi batean.

JOSETXO ARANZABAL

zen, batez ere, lehenengo minutuetan. Eskuineko hegaletik, Iker Oruetak jokaldi politak egin zituen. Gainera, Imanol Rodriguez zelairatu zuen Arenazak, eta hark partiduen nondik norakoa aldatu zuen. UDAREN gola

65. minutuan iritsi zen, penaltiz. Rodriguezi egindako penaltia Arriagak sartu zuen (1-0). Lehia irabazita zegoela zirudienean, baina, Trintxerpek berdinketaren gola egin zuen. "Pena izan da, baina uste dut emaitza justua izan

dela; joko aldetik, ez gara eurak baino gehiago izan", adierazi zuen Astolak partidua bukatu zenean.

Datorren egunean, derbia jokatuko dute Mondrak eta UDAK Mojategin; UDAK 3. postuari eutsi gurako dio.

PREFERENTE MAILA > MONDRA ETA ALOÑA

Mondrak eta Aloñak galdu egin zuten etxetik kanpo

Ondarroaren eta Vasconiaren aurka galdu zuten, hurrenez hurren, ibarrekoek

A.E. > BERGARA

Ez da aste bukaera ona izan, emaitzei dagokionez, ibarreko Preferente mailako taldeena. Mondrak eta Aloñak etxetik kanpo jokatu zuten, eta biek ala biek galdu egin zuten.

MONDRA

Arrasateko taldeak nahitaezkoa zuen garaipena lortzea goiko postuetan jarraitzeko, baina, azkeneko partiduetan gertatu zaien bezala, zapatuan ere, Ondarroako zelaira lo irten ziren Gordobilen mutilak. Hala,

partiduko 20. minuturako, bi gol jasota zituzten arrasatearrek. Emaitza horrek guztiz baldintzatu zituen partiduen nondik norakoak.

Ondoren, Arrasateko mutilak ahalegindu ziren partiduari buelta ematen, baina, atsedean egindako aldaketek jokoaren dinamika guztiz aldatu zuten arren, ez zuten lortu baloia sareetan sartzea.

ALOÑAK 3-2 GALDU ZUEN

Vasconiaren aurka, bigarren astez jarraian, galdu egin zuten oñatiarrek. Zapatuko lehian, 3-2 nagusitu ziren donostiarrak eta, ondorioz, puntu gabe itzuli ziren etxera Josu Zubiaren mutilak. Hala, 14. postura jaitsi dira oñatiarrek. Datorren astean, Zumaiakoren etxean jokatuko dute.



GOIENKARIA

BTLSko neskek 4-1 irabazi zuten etxean

Ipintza futbol zelaian, atzo, BTLS eta Elgoibar taldeek jokatutako norgehiagokan, etxekoak nagusitu ziren (4-1). Emakumezkoen liga txapelketako partiduko lehen gola BTLS taldeak egin zuen. Bi goleko errenta zutenean, etxeko neskek penalti jaurtiketa huts egin zuten. Halaber, Elgoibarrek lehen gola egin zuenean, jokoa asko nahastu zen. Bada, BTLSz gain, izan zen beste bi gol, norgehiagoka irabazteko. Esti (2), Alonso (1) eta Magie (1) izan ziren BTLSko gogileak.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	18	8
2. Hernani	15	8
3. UDA	14	8
4. Real Union	14	8
5. Zumaiako	12	8
6. Aurrera	12	8
7. Berio	12	8
8. Trintxerpe	12	8
9. Mondra	12	8
10. Euskalduna	11	8
11. Zestoa	11	8
12. Vasconia	10	8
13. Eibartarrak	9	8
14. Aloña Mendi	9	8
15. Anaitasuna	8	8
16. Hondarribia	6	8
17. Idiazabal	5	8
18. Touring	5	8

Emaitzak

Vasconia-Aloña Mendi	3-2
Real Union-Zestoa	1-1
Hondarribia-Idiazabal	2-2
Berio-Anaitasuna	1-2
Ordizia-Eibartarrak	1-1
Euskalduna-Hernani	0-1
UDA-Trintxerpe	1-1
Aurrera-Mondra	2-0
Touring-Zumaiako	2-2

Hurrengoak

Zumaiako-Aloña Mendi	
Zestoa-Vasconia	
Idiazabal-Real Union	
Anaitasuna-Hondarribia	
Eibartarrak-Berio	
Hernani-Ordizia	
Trintxerpe-Euskalduna	
Mondra-UDA	
Touring-Aurrera	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Amalka Bat-Bergara	1-1
Amara Berri-Antzuola	1-5

BIGAREN ERREGIONALA

Eibartarrak-Elgeta	0-0
Gazteak-UDA	3-1
BTLS-Urki	7-2
Mondra-Ikasberri	3-0

EMAKUMEZKOAK

Arizmendi-Lazkao	1-3
Bergara-Mutriku	1-0
Mondra-Anaitasuna	2-3
BTLS-Elgoibar	4-1
Lagun Onak-Arizmendi	2-0

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Ordizia	0-5
Bergara-Urola	3-0
Anaitasuna-UDA	2-1
Aloña Mendi-Beasain	5-3

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK

Bergara-Eibartarrak	4-2
UDA B Arizmendi	atsedena

OHOREZKO KADETEAK

Antiguoko-Aloña Mendi	2-1
Sanse-Bergara	2-2

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK

Eibartarrak-Bergara B	0-0
UDA B-Arrasate	1-2

KADETE NESKAK, F11

Lazkao-Arizmendi	4-1
Mutriku-Aloña Mendi	6-0

Txartel bat bezain bizkorra den kreditua

Txartel itxura dauka, baina txartel hutsa baino askoz ere gehiago da. Hain da kreditu azkarra non ez dagoen eskatu beharrik ere. Poltsikoan eraman dezakezu. Eta era guztietako erosketak finantzatzeko balio dizu.

Zeuk erabakiko duzu noiz eta zenbateraino erabili, baita diru hori nola itzuli nahi duzun ere. Itzultzen duzun kopurua berriz ere erabilgarri izango duzu zure txartelean. Berehala, eta era iraunkorrean.

Eskura ezazu zeure **MasterCard Txartel Urdina, 901 333 555** telefono-zenbakira deituta. Hartara, zernahitarako kreditua izango duzu.

MasterCard Txartel Urdina



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



HOTEL JATETXEA SANTA ANA ★★★

Jangela

12 logela

Suite logela bat



Bilera gela

Haur parkea

Aparkaleku pribatua

Taberna

Etixerako aurrez
prestatutako jakiak
prestatzen dira



Zabaldu berria!

Uribarri 37 (Udala bidean) • Tel: 943 79 49 39 • Arrasate



Karaoke Ikuskizuna

Arrasateko Amaia Antzokian

**Azaroaren
10ean eta 11n**

Azaroaren 10ean:

- 1. saioa: 15:30ean
- 2. saioa: 16:40ean
- 3. saioa: 17:40ean
- 4. saioa: 18:40ean

Azaroaren 11n:

- 1. saioa: 16:00etan
- 2. saioa: 17:15ean
- 3. saioa: 18:30ean

Zatoz zure herriko
kantariak animatzera!!

BABESLEA



gaztetxoan
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LAGUNTZAILEAK



EUSKADIKO MAILA > ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Sufrituta, denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Bergarak

BERGARA

31-29

UROLA

Bergara > Uribe, Ugalde (4), Ruben (9), Najera (2), Odei, Iñaki (5), Mikel, Mikel, Jon, Unai, Ioritz, Josu (4), Xabier (1) eta Aitor (5).

Urola > Zurutuza, Larrea (6), Gomez (1), Mendia (1), Lonjas (2), Beltza (6), Elgarresta (1), Martin (3), Hurtado (3), Areizaga, Hernandez, Soraluze (4) eta De la Rosa (2).

Markagailua bost minuturo > 2-3, 7-7, 7-11, 12-12, 14-12, 15-13. Atsedena. 19-14, 20-18, 22-22, 25-23, 28-26, 31-29.

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Merezitako saria lortu zuen zapatuan Bergara eskubaloia taldeak. Euskadiko Txapelketako zazpigarren jardunaldian eskuratu zuen Josetxo Muniategiren taldeak denboraldiko lehen garaipena. Hori bai, asko sufritu zuten etxe-koek Urolaren aurkako partidua irabazteko.

Labegarietan jokatu zen derbia punturik lortu gabe agertu ziren bi taldeak. Hala, sailkapenean azken tokia atzean uzteko aukera paregabea zuten Bergarak eta Urolak. Horregatik guztiagatik, giro aparta egon zen harmailetan, lehia ikustera Zumarragako zale asko hurbildu zen-eta.

LEHENENGO ZATIA

Hasierako minututik ikusi zuten zaleek derbia oso parekatu izan-



DEFENTSA Aitor Aldanondorei banakako defentsak egin zituen arren, bost gol egin zituen zapatuan.

JOSETXO ARANZABAL

go zela. Urolak agindu zuen markagailuan lehenengo zatiko minuturik gehienetan; hala, gehienez ere, hiru goleko tartea izan zuten (7-10). Bada, azkeneko hamalau minutuetan, Muniategiren taldeak 6-2ko partziala egin zuen. Markagailuari buelta eman zion Bergarak, eta atsedenera bi goleko errentarekin iritsi ziren etxe-koak (15-13).

SUFRITUTA

Etxeko taldeak egiten duen joko azkarrari esker, bost goleko errenta zabaldu zuen bosgarren minutuan (19-14). Bada, epaileek, bi taldetako jokalariek asko egotzi zituzten, eta zortzigarren minututik aurrera, joko asko nahastu zen. Halaber, Urolak banakako defentsak egin zizkion Bergarako jokalariei Aitor Aldanondori.

Hala, norgehiagoka bukatzeko sei minutu falta zirenean, Bergarak gol bakarreko errenta zuen (27-26). Hiru minutu eta gero, abantaila hiru golekoa zen (29-26). Une hartan, Muniategik hutsartea eskatu zuen, azken minutuetako joko antolatzeke.

Edozelan ere, azkeneko minutuak oso beroak izan ziren, kantxan eta harmailetan.

LEHENENGO TERRITORIALA > HIRUGARREN JARDUNALDIA

Zumarragan irabazi dute ligako lehen lehia arrasatearrek

UROLA

20-22

ARRASATE

M.B. > ARRASATE

Lehenengo Territorial mailako hirugarren jardunaldiko partidua jokatu zuten atzo Urolak eta Arrasatek, eta, batik bat bigarren zatian defentsan egindako lanari esker, arrasatearrek denboraldiko lehenengo partidua irabazi zuten.

Lehenengo zatian, Urolak agindu zuen, eta atsedenera abantailarekin iritsi ziren (12-10). Bada, bigarren zatian egindako defentsari esker, Anjel Moralejaren taldeak buelta eman zion lehiari. Markagailuan bi eta hiru goleko errenta jarri zuten arrasatearrek, eta bukaera arte eutsi zituzten horri.

ATZERATUTAKOAK

Arrasatek Egiaren aurka jokatu zuen zapatuan atzeratutako partidua. Atsedenera berdinketarekin iritsi arren (10-10), bigarren zatian hasierako minutuetan galdu egin zuten (19-23).



JAURTIKETA Irudian, Arrasateko jokalaria Enrique Vazquez, zapatuko lehian.

J.A

EUSKADIKO TXAPELKETA

Jaurtiketak huts egin zituzten oñatiarrek

URDAIBAI

23-20

ALOÑA MENDI

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Partidu ona jokatu zuten Aloña Mendiko neskek zapatuan Urdaibain, baina, jaurtiketetan egindako hutsen ondorioz, ezin izan zuten irabazi. Hala, azkeneko emaitza 23-20 izan zen bizkaitarren alde.

DEFENTSAN, LAN ONA

Aurtengo denboraldiko emaitzak onak ez izan arren, orain arte jokaturako hiru partiduetatik bi galdu eta bestea berdindu dute, eta, joko aldeetik, itxura ona ematen dabilta oñatiarrek. Hala, zapatuko partiduan taldeak izandako jarrerarekin pozik zegoen Maitane Ruiz entrenatzailea: "Oso partidua txukuna jokatu dugu; batez ere, defentsan ibili gara ondo. Bestalde, erasoan egindako jokoak ona izan arren, ez gara fin ibili baloia sareetan sartzerakoan. Jaurtiketa oso samurrak huts egin ditugu", azaldu zuen Ruizek partidua amaieran.

Lehenengo zatiko emaitza (9-8) defentsan egindako lan onaren ordaina da. Ordu erdian, zortzi gol besterik ez zituzten jaso Aloñako neskek. Erasoan, baina, bizkaitarren atezainarekin egin zuten topo oñatiarrek.

Datorren astean, jai izango dute Euskadiko Txapelketako neskek. Hurrengo lehi, Zubikoan izango da, Elgoibarren aurka, hilaren 11n.

emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO TXAPELKETA, MUTILAK
Bergara-Urola 31-29
Ford Mugarri-Romo atzeratuta

EUSKADIKO TXAPELKETA, NESKAK
Urdaibai-Verkol Aloña 23-20

LEHENENGO TERRITORIALA
Arrasate eskubaloia-Egia 19-23
Urola Super BM-Arrasate 20-22

BIGAREN TERRITORIALA
Groseko-Aloña Mendi 31-28

GAZTEAK, GIZONEZKOAK
Aloña Mendi-Urola 27-31
Arrasate-Haritz 31-18

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK
Pulpo-Verkol Aloña Mendi 22-25
Aiala-Citroen Chapime Arrasate 38-2

KADETEAK, GIZONEZKOAK
Berezo Aloña Mendi-Katilu 24-41
Bergara-Irongo Gaztiak 26-26

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK
Pulpo-Verkol Aloña Mendi 10-21
Bergara-Egia Servi Chap 9-12

LEHENENGO MAILA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Lau jokatu eta lauak irabazita, lider izaten jarraitzen dute Arrasatearrek

Defentsako lana ezinbesteko zen Legarcia taldeari aurre egiteko, eta arrasatearrek ondo erantzun zuten zapatuko lehia

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

83-69

PROMOCIONES LEGARCIA

Mondragon Unibertsitatea > Gamarra (20), Zeziaga (9), Mallabiabarrena (2), Arejolaleiba (2), Peña (3), Atxa (6), Quintana (5), Hernandez, Alarcia (9), Zeziaga (6), Biain (16) eta Isasa.

Promociones Legarcia > Soto, Labairu (3), Ojer (14), Aramendia (11), Boneta, Moreasa, Juaniz (12), Lopez, Miguel (14), Cia (8), Corvo (2) eta Corvo (5).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 20-25. Bigarren laurdena: 43-36. Hirugarren laurdena: 60-52. Laugarren laurdena: 83-69.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Laugarren garaipena jarraian eskuratu zuten zapatuan Mondragon Unibertsitateko mutilek Lizarrako Promociones Legarciaren

aurka. Hortaz, partidurik oraindik ez du galdu Iñaki Merinok zuzentzen duen taldeak. Aurreikusita bezala, irabazteko moduko partidua zen zapatukoa; hala ere, gogor egin behar izan zuten lan arrasatearrek lehenengo laurdeneko emaitzari aurre egiteko: 20-25 izan zen hori.

DEFENTSAN, HOBETU BEHARRA

Iazko zenbakiei begiratuta, Promociones Legarcia saskiratze gehien sartu zituen bigarren taldea izan zen. Hortaz, defentsan lan ona egitea nahitaezkoa zen Lizarrakoei irabazteko; eta, bigarren laurdenean, ondo egin zuten lan etxeokok. 5. minutuan, 26-33 atzetik ziren arrasatearrak, baina, lau minututan, 11-0eko partziala egin zuten, eta 37-33 aurretik jarri ziren. "Defentsako lana garrantzitsua izan da partidua irabazteko. Jakinaren gainean geunden gaurkoan defentsak



ERASOAN Mallabiabarrena jaurtiketa egiteko gertu, aurkaria aurrean duela.

JOSETXO ARANTZABAL

izango zuen garrantziaz; hala ere, lehenengo laurdenean, ez dugu lan ona egin. Bigarrenetan, baina, erreakzionatu egin dugu, eta oso ondo ibili gara", adierazi zuen Iñaki Merinok.

Bigarren laurdenetik aurrera, etxeko taldeak ez zuen arazorik izan partidua aurrera ateratzeko. Atsedenen ondoren, Alarcia, Atxa, Gamarra, Biain eta Zeziaga irten ziren kantxara. Defentsan egindako lan onak kontraerasoan irteteko bidea eman

ziren arrasatearrei. Hala, laugarren minuturako, 53-43 aurretik ziren markagailuan.

JOKALARIEN BETERANOTASUNA

Zapatuko partiduan, jokalariek betaranoen lana ezinbestekoa izan zen norgehiagoka irabazteko. Alarcia, esaterako, ondo zuzendu zuten etxekoek jokoak, eta momentu erabakigarrietan maila ona eman zuten. Partidu amaieran, bederatzi tanto egin zituen. Bestalde, zapatuko lehia, Jago-

ba Gamarrak sartu zituen puntu gehien, hogeitahi, alegia; horietatik bost hiruko saskiratzeak izan ziren. Iñigo Biainek 16 puntu sartu zituen.

Orain arteko partidu guztiak irabazita, Mondragon Unibertsitatea lehenengo da sailkapenean. "Gure helburua ahalik eta talde sendoena sortzea eta fisikoki ondo egotea da, eta emaitzek lan ona egiten gabiltzala erakusten dute", azaldu zuen Merinok, sailkapenari buruz galdetean.

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA > ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Defentsako lanari esker irabazi zuten Eskoriatzako neskek

ESKORIATZA

54-41

DOKA

DEFENTSA

Eskoriatzako neskek 1-3-leko defentsarekin hasi zuten partidua. Hala, intentsitate handiarekin defenditu zuten. Edozelan ere, erasoan, saskiratze errazak huts egin zituzten. "Saskiaren ondoan, jokaldi asko huts egin ditugu. Hala, puntu asko galdu ditugu", esan zigun zapatuan entrenatzaile lanak egin zituen Javi Corbalek. "Edozelan ere, defentsan egin dugun lanari esker irabazi dugu norgehiagoka".

Defentsan egindako lanari esker, kontraerasoan irteteko aukera bat baino gehiago izan zuten, eta puntuak egiteko aprobetxatu zituzten.



ERASOAN Eskoriatzako Maite Usabiaga, erasoko jokaldi baten.

JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

MU-Promociones Legarcia 83-69

GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA

Zarautz-Candy BKE 72-57

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

MU-Kostkas 73-60

Aloña-Erroibide 82-52

SENIORRAK, EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Doka 54-41

JUNIOR GIZONEZKOAK

BKL CAF-M.U 85-88

Internacional-Bergara 41-52

Aloña Mendi-Cafes Aitona 78-43

JUNIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Oiarso 51-34

Bergara-Internacional 64-51

KADETE GIZONEZKOAK

MU C-Cafes Aiotna 30-96

MU B atsedena

Oiarso-Aloña Mendi 43-30

Easo Loyola-MU A- 48-57

KADETE EMAKUMEZKOAK

Easo Ostadar-Eskoriatza 52-40

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

Intxaurtxueta kiroldegian jokatu zuten zapatuan Eskoriatza eta Doka taldeek Gipuzkoako Txapelketako partidua. Joan den aste bukaeran atsedena izan ondoren, Eskoriatzako nesken taldeak erraz lortu zuen garaipena.

Halaber, gazte mailako hiru jokalarik hartu zuten parte zapatuko norgehiagokan.

LEINTZ BAILARA

Zortzi minutuko lau zati jokatzeko dira mini-eskubaloian

ITURRIPE Iturripeko kantxa bi zatitan banatu zuten; hala, goizeko hamarretan, aldi berean bi partidu jokatzeko aukera izan zuten neska-mutikoe

HERRI ASKOTAKOAK Leintz Bailarako eskola kirolean, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Gatzagako haurrek parte hartzen dute

MINI-ESKUBALOIA Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako neska-mutikoe mini-eskubaloiko partiduak jokatu zituzten zapatu goizean

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Goizeko hotzari aurre eginez egon ginen zapatu goizean Iturripe kiroldegian. Hitzordua goizeko hamarretan genuen, mini-eskubaloian jokatu behar zuten neska eta mutikoekin. Zapatu partiduetan, Arrasate eta Aramaio taldeak lehiatu ziren.

Izan ere, Leintz Bailarako eskola kirolean, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Aramaio eta Gatzagako neska-mutikoekin egiten dute lan. Hortaz, Leintz Bailarako eskola kiroleko monitorea lan oso ona egiten dute herri guztietako gazteak koordinatzen.



Gazteluondo B. Josuk, Amaiak, Markelek, Mikelek, Asierrek, Maxek, Andonik, Oihanek, Jonek eta Patxik osatzen dute taldea.



Aramaio. Argazkian, Ander, Mikel, David, Unai, Endika, Maialen, Unai, Mikel, Unai eta Mikel daude.

OINARRIAK

Zapatu goizean, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako neska-mutikoe lehiatu ziren mini-eskubaloiko partiduetan. Hala, Iturripeko kantxa bi zatitan banatu zuten: batean, Gazteluondo B eta Aramaio taldeetako mutilak lehiatu ziren; eta, beste batean, Santa Teresa eta Almen taldeetako neskek.

Mini-eskubaloiko partiduak bost jokalarirekin jokatzeko dituzte, eta, guztira, zortzi minutuko lau zati jokatzeko dira. Halaber, talde bakoitzak entrenatzaile baten laguntza izaten du.

Edozelan ere, bestelako laguntza ere izaten dute eskola kirolean parte hartzen duten neska-mutikoe. Goizeko hamarretan izan arren, Iturripeko harmailetan guraso asko elkartzeko ziren, etxeko txikiak kirolean egiten dituzten lehen urratsak ikustera.



Santa Teresa. Naiarak, Andrea, Eiderrek, Ainhoa, Naiarak, Leirek, Liernik eta Jonek osatzen dute taldea.



Almen Jon entrenatzailearekin daude Leire, June, Maider, Ane, Ane, Leire, Ainhoa, Idurre eta June.

ASKO ENTRENATZEN DUZUE?



Andrea, Naiara eta Jone
Santa Teresa

Partidua hasita zegoela egin genion argazkia Arrasateko hirukoteari. Eserlekuan zeudela esan ziguten astean bi aldiz entrenatzen dutela, martitzenetan eta egubakoitzetan. "Rebeka da gure entrenatzailea", esan ziguten, "eta oso gustura egiten ditugu entrenamenduak". Zapatuan, mini-eskubaloian jokatu zuten.



Hodei, Max eta Markel
Gazteluondo B

Hasieran, eserlekuan egotea tokatu zitzaizkien argazkiko lagunei. Maider da Gazteluondo taldeko entrenatzailea, eta aholkuak ematen zituen bitartean, "oso gustura eta gogor" entrenatzen dutela esan ziguten. "Entrenamenduak Gazteluondo gimnasioan egiten ditugu", esan ziguten Hodeik, Maxek eta Markelek.



Oihan eta Patxi
Gazteluondo B

"Oso gustura etortzen gara aste bukeretan eskola kirola egitera", esan ziguten argazkiko bi mutilek. "Aste barruan, eskolan eta eskolatik kanpora, egunero entrenatzen dugu", azpimarratu ziguten. Mini-eskubaloiko partiduak lau zati dituzte, tarte izan zuten Oihanek eta Patxik minutu batzuk jokatzeko.



Maider
Santa Teresa

"Rebekarekin egiten ditugun entrenamenduetan, lehenengo, beroketa ariketak egiten ditugu", esan zigun Maiderrek, "eta gero, partiduak jokatzeko ditugu". Maiderrek eskubaloia gustuko duela esan zigun.

Jose Ramon Fernandez > Idazlea

"Sasoi hartan, beharrezkoa zen mendira joateko Gobernazioari baimena eskatzea"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Egubakoitzean egin zen Besaideren mende erdia batzen duen liburua-aren aurkezpena. Jose Ramon Fernandez mondragoetarrakidatzi du eta Besaideko egoitzan egongo da salgai 25 (bazkide) eta 28 eurotan.

Hilabeteetako lanaren emaitza da liburua. Gustura zaude emaitzarekin?

Bai, uste dut itxura ona daukela liburua; ni pozik geratu naiz azken emaitzarekin. Hala ere, liburua arnasa hartu behar du, eta denborarekin aztertu behar da.

Zer izan da Besaide elkarte Arrasaten? Hau da, zer eskaini dio herriari azken 50 urteetan?

Oso elkarte garrantzitsua izan da Arrasaten; hasieran, behintzat, mendizaletasuna oso kirol merkea zen. Udalatxera joateko ez zegoen ezeren beharrik; hau da, mendira joateko ez zen batere materialik behar. Ordutik hona, garapen handia izan du elkarteak; gaur egun, beste kirol asko egon arren, 2.000 bazkide dituen elkarte da.

Gainera, Besaidek denbora librea, aisia, modu egokian pasatzeko aukera eman dio herriari.

Nolakoak izan ziren elkarteen lehenengo urteak?

Juventud Deportiva elkarteen barruan sortatutako taldea

da Besaide; orduan, diru gehiena futbolera bideratzen zen. Hala, mendizale talde bat elkartu eta Juventud Deportivatik banatzea erabaki zuten. Hasieran, Juventud Deportiva barruko beste sail bat zen; baina, berezko gestioa zutenez, mendizaleen elkarte bereizi egin zen.

Hainbat elkarrizketa egin dituzu liburua osatzeko.

Azkeneko atalean, 12 pertsonarekin egin dut berba: bi edo hiru presidenteak izandakoak dira, eta beste guztiak mendizaleak dira. Venus Uranga, Jaime Epelde, Xanti Maiztegi, Mari Carmen Otadui... denak mondragoetarrak dira.

200 argazki ditu liburua; zaila izan da horiek lortzea?

Argazkiak lortzeko, ez dut zailtasunik izan; elkarteak utzitakoak dira batzuk eta beste batzuk, jendeak emandakoak.

"Istripu aldetik, tragedia handiena Alepeetako Mont Blanc-en gertatukoa izan da"

"Besaidek denbora librea modu egokian pasatzeko aukera eman dio herriari"

Horrelako lan batean, zailena hasierako urteetako datuak eta dokumentuak lortzea izaten da; baina, sasoi hartan, beharrezkoa zen, mendira joateko, Gobernazioari baimena eskatzea. Horregatik, datu guztiak daude gordeta.

Zein da zure argazki gustukoa?


Oso itxura oneko argazkiak daude; baina, nire gusturako, oso argazki polita da Udalatxan mahaia jarri zenekoa, eta baita Venus Uranga emaztearekin agertzen dena ere.

Zoritxarrez, mendizaletasunak momentu txarrak ere izaten ditu. Zeintzuk izan dira Besaidek bizi izan dituen momentu txarrenak?

Istripu aldetik, tragedia handiena Alepeetako Mont Blanc-en gertatutakoa izan zela uste dut. 1955. urtean, Yanke, Bacigalupe, Peciña eta Ugartetxea mendizaleek bizia galdu zuten mendian.

Eta zein da anekdota bitxiena?

Urte hauetako anekdotarik ez, baina, liburua egiterakoan, izan ditugu hainbat anekdota; argazki oin batek zera zioen: *Jose-txu Ugalde recibiendo una medalla de una bella señorita vitoriana*, eta argazkian, gizon bat agertzen zen garaikurra ematen. Akats horrekin, azkeneko zuzenketara arte ez ginen konturatu.



Jose Ramon Fernandez, liburu eskuetan duela.

JOSETXO ARANZABAL



JOSETXO ARANZABAL

Datorren urterako aurrekontuak onartu zituen Mendi Federazioak Elgetan

Euskal Herriko Mendi Federazioak urteko batzarra egin zuen zapatuan Elgetako udaletxean. Euskal Herrian dauden 200 mendi elkarteek zuten urteko batzarrean parte hartzeko aukera; bada, Elgetan, 80 pertsona egon ziren. Haiek aho batez onartu zituzten gai zerrendan zeuden hiru gaiak: 2008an lizentziek izango duten prezioa, urte berrirako aurrekontuak eta lasterketen egutegia. Federazioak egindako bilerak ordu eta erdi iraun zuen. Euskal Herriko Mendi Federazioko ordezkari berriak 2008. urtean aukeratuko dituzte.

ATLETISMO > OMENALDIA

"Ezuste handia izan da Atletismo Federazioaren omenaldia jasotzea"

Jose Ramon Petreñasek epaile modura egindako lanarengatik jaso zuen omenaldia egubakoitzean

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatutako 2. Atletismoaren Festan jaso zuen Jose Ramon Petreñasek omenaldia, azken 25 urteotan epaile modura egindako lanarengatik. "Egia esan, ez nuen espero. Hala, nire izena entzun dudanean, zirra berezia sentitu dut", esan zigun arrasatearrak. "Oso pozik nago omenaldiarekin, bai", gaineratu zigun.

NAZIONAL MAILAKO TITULUA

Orain 16 urte lortu zuen nazional mailako epaile titulua, eta, ordutik, hainbat txapelketatan parte hartu du Petreñasek. "Espainiako txapelketatan eta, orain bi urte, Donostian jokatu zen Beteranoen Munduko Txapelketan parte hartu nuen", azaldu zigun; "Bartzelonako Joko Olinpikoetan parte hartzeko aukerarik ez nuen izan".

Orain, 70 urte beteta, Joko Olinpikoetan parte hartzeko ametsari uko egin dio. "Dudan adinarekin, Espainiako Federaziorendako Ohorezko Epaile naiz. Hala, dagoeneko, ezin dut Joko Olinpikoetan parte hartu", esan zigun.


Aste bukaera batzuk barru, kross denboraldia hasiko da, eta bertan egongo da Jose Ramon Petreñas arrasatearra.



> **'KANTARI'**
Eskoriatzan ere nahikoa musika eta dantza egon zen > 24-25



> **SABIN SALABERRI**
Manuel Lekuona saria eman diote musikariari > 27



> **BERTSOLARITZA**
Txapelketan finalerdietarako sailkatu da Ainhoa Agirreazaldegi > 27



> **BLOODY HOTSAK**
Bloody Mary eta Gaztelupeko Hotsen zigilua > 27

Roy Loney > Abeslaria eta aktorea

"Nire kontzertuetan, antzerkia eta rocka eskutik doaz; eszena gizona naiz"

MAIER URANGA > ARRASATE

Ameriketako Estatu Batuetako Flamin' Grooviesko partaide nagusi izatearren da ezagun Ron Loney jauna, batik bat. 61 urte dituen arren, oraindik ere ohore bat da Roy Loney taula gainean jo eta su ikustea. Zapatuan gure artean izateko zortiaz gozatu genuen 3.60 aretoan, Señor No-rekin batera.

Konta egiguzu, Roy, nola gogoratzen dituzu musika munduan hasierako zure garaiak?

Ni aktorea naiz, aktore izan nahi nuen orduan ere eta antzerkia egiten nuen. Rolling Stones-ak eta Beatles-ak etorri ziren behin ikustera, eta asko gustatu zitzaizkien, momentu onak pasarazi nizkien. Orduan erabaki nuen rock-and-roll pixka bat egitea, ondo pasatzeko, denborapasa gisa. Hori baino ez zen, denborapasa, baina, denborarekin, konturatu nintzen musikak antzerkiak baino diru gehiago ematen zidala, eta, batik bat, musikan saiatu izan naiz ordutik. Eszena gizona naiz ni, besterik gabe.

Eta Flamin' Groovies-ekin pasatutako hasierako uneak?

Izugarriak izan ziren, ez guretzat bakarrik. Garai hartan, San Francisco, giro aparta zegoen: askatasunean egiten genuen lan denok batera, komunitate antzeko bat osatzen genuen. Sinisten genuenaren alde, elkarrekin lanean ibili ginen, marihuanaren legalizazioaren alde eta abar.

Hollywooden ere izan zineten, Supernazz grabatzen. Zer moduko esperientzia izan zen hura zuretzat?

Pentsa... Elvis egon zen komun berean egon nintzen, izugarria! Diskoaren ekoizpenean diru gehiegi bota genuen komunitetik behera; beste garai batzuk ere baziren, baina, tira, horrek guztiak eraman gaitu gaur gauden tokiraino. Oraindik ere disko aparta dela uste dut han grabatu genuena, Columbiako A estudioan, hain zuzen ere.

Simon eta Garfunkel genituen aldamenean, edo Paul Revere and the Raiders. Guretzat amets bat izan zen, zeruan egoitea modukoa.



Roy Loney, kontzertu aurretik garagardo bat edaten.

GOIENKARIA

70EKO HAMARKADA

"Garai haiek bikainak izan ziren. Sinisten genuenaren alde elkarrekin lanean ibili ginen"

Eta orain, beste komunitate edo familia bat sortu duzu Señor No-rekin?

Orain urte bete ezagutu genuen elkar, nire taldearekin Euskal Herrira biran etorri nintzenean. Xabi (Señor No) *road-manager* lanetan izan genuen, eta primeran ulertu genuen elkar.

HOLLYWOOD

"Elvis Presley egon zen komun berean egon nintzen. Izugarria izan zen esperientzia"

Orduan, aldi baterako, Señor No eraldatzea erabaki genuen, eta *Bottle of wine* EPa ateratzea. Lau abesti ditu, tartean, *Ardo botila* abestia.

Dirudienez, oso harreman ona dago: LPa grabatu behar duzue Andoaingo Garate estudioetan.

SEÑOR NO

"Erraztasuna daukagu gure artean moldatzeko; paregabeak dira Señor No taldeko mutilak"

Bai. Erraztasuna daukagu gure artean moldatzeko; musikari dagokionez ere, berdin gertatzen da, eta aprobetxatu beharra dago. Izugarriak dira gazte haiek. Eta gero, noski, beste bira bat egingo dugu lan berria ezaugarazteko. European ibiliko garelako uste dut, Alemanian eta

Ingalaterran, besteak beste. Hamabiren bat abesti grabatzekoak gara. Oraingorako, sei egun izango ditugu, eta esperientzia bikaina izan behar duela iruditzen zait. Oraingorako, harreman askoz hobea daukagu; zoragarria izango da. Gogoia dugu, gainera eta uste dut igarriko dela.

Aurreko lanari izena, Ardo Botila, nondik dator?

Fireballs taldeak 60ko hamarkadan jotzen zuen abesti zoragarri baten izena da. Nire beste taldeekin, beti abestu gura izan dut, baina ez zaie gehiegi gustatzen. Beti ezezkoa ematen zidaten. Guantxe eta konpainiari proposatu nienean, baietz, esan zidaten pozik abestuko zutela. Gainera, Euskal Herrian, ardoa asko mires ten duzue, inguruan dago elako munduko ardorik goxoenetako.

Orduan, orain ez da sexua, drogak eta rock-and-rolla aldarrikatzen?

Ez; orain, Ardoa, ardoa eta ardo gehiago esaten da.

Zer iruditzen zaizu Euskal Herriko entzulegoa?

Zoragarria. Oso maitatua sentitu naiz, berotasuna eta errespetua sumatzen ditut rockarekiko. Maite dut euskal entzulegoa.

Aurreko urtean ere, 3.60 aretoan egon zinen. Zaila zenuen kontzertu hura hobetzea, izan ere, bikaina izan zen; baina lortu duzula esango dugu.

Bai; ezberdinak dira kontzertu guztiak, baina, lehenago esan bezala, honek merezi izan du.

Atrebentzia handia ez bada, zenbat urte dituzu?

61. Baina taula gainean 16 ditudala iruditzen zait. Oso ondo nago osasun aldetik, eta niretzat ere harrigarria da dagoeneko daukadan adina izatea.

Ezagutzen duzu Euskal Herriko beste musika talderik?

Oso gutxi baina onak, NCC, eta Madrilgo Los Chicos.

Esateko besterik?

Mila esker, oso-oso ondo pasatu dut. Zoragarriak zarete. Hurrengo bat arte.



Kantari

Eskoriatzan



ARGAZKIAK: JOSETXO ARANZABAL

Eskoriatza, kantu eta dantza

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA

Egunak laburtu arren, luzea da musikak eta dantzak aste bukaera honetan Eskoriatzako HUHEZIKO aretoan egin duten bidea. Aretxabaleta eta Eskoriatzako haur eta gaztetxoak igo ziren taula gainera, 150 guztira.

Lagunak eta gelakideak animatuz, eszenatokitik geratu txikienak, salto eta dantzan batzuk eta ikuskizuna jarraitzeko ipinitako pantailaetara begira besteak. Domekan zapatuan baino jende gehiago izan zen.

GURASOEN EMOZIOA

Abestiak, askotarikoak, denak euskal kantak: Tapia eta Leturiaren *Festarik festa*; Pirritx eta Porrotxen *Maitte zaitut*; Oskorriren *Katuen testamentue*; Maixa eta Ixiarren *Deabrutxo maitia*; Sorotan Beleren *Atalaia*; Kortaturen *Sarri-sarri* eta Zaramaren *Iñaki*. Azken bi abesti horiekin, batez ere, gurasoen bihotzak ukitu zituzten eta, euren garaiko kantuak izanik, dantzan ez ezik, kantuan ere lagun egin zieten jende artetik.

Kantuak ez ezik, itxura ere asko zaindu zuten neska-mutikoek; izan zen makilatuta joan zenik, eta mutiko askok bisera jantzita abestu zuten. Taula gainera, gurpildun aulkian kantura ere ausartu zen Martin Perez.

Kantari Debagoianean ikuskizunak atsedean hartuko du zubian, eta azaroaren 10 eta 11n itzuliko da Arrasateko Amaia antzokira. Arrasateko eta Aramaioko gaztetxoek jardungo dute bertan. Ikuskizuna Goiena Telebistan ematen, berriz, azaro amaieran hasiko dira.



HONELA IKUSI ZUTEN GAZTELEKUAN EGON ZIREN GURASOEK



Nerea, Miren eta Nerea
Kantari-ko partaideak

Eskoriatzako hiru lagun horiekin berba egin genuen euren saioaren aurretik, eta "asko entseatu arren, urduri" zeudela esan ziguten. Maria Gora abestu zuten. "Gustuko dugu *Kantari*; aste bukaerak alaiagoak dira", zioten.



Segundo Zubizarreta
Gurasoa

"Umearekin etorri gara, denbora pasa. Ondo dago, haurrak entretenitzeko modu ona da *Kantari*", onartu zigun Segundok.



Miguel Perez
Gurasoa


"Semea ekartzera etorri naiz, eta animatzera. Euredako oso garrantzitsua da, eta oso ondo pasatzen dute", esan zuen aita horrek.



Beñat, Iban eta Beñat
Kantari-ko partaideak

Saio aurretik, "oso urduri, baina pozik" zeuden eskoriatzar horiek. Sorotan Bele taldearen Arratsalde Honetan abestia zuten prestatuta. "Oso gustuko dugu *Kantari*, eta hurrengo baten ere animatuko ginatete", esan zuten.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK ASEGI

www.asegim.com
ESTRADÓS
www.consultoriaestrados.com

AKADEMIAK BASTIDA

www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK

BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK

ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK

360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK

MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZTEGIAK

ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate
UGARTE AROZTEGIA
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

ARRANDEGIAK

ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK

BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguroslagunaro.com
WINTERHUR
www.axawinterhur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK

4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK

BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA

OSKAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

EGUZKI OIHALAK

TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi
GORLA ELEKTRIZIDADEA
www.goiena.net/blogak/gorla

ELEKTRIZITATE MATERIALAK

SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK

EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK

CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK

PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK

ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA

EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

GARAJEAK / KONPONKETA

AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBELOGA
www.autos-ribeloga.com
GALLASTEGI MÓTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK

HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com
DENETIK GARBITASUN
MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK

IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA

ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA

LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK

OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK

URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIKAK

MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLES
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK

HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEA

ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK

RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK

SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA

DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA

HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK

ANBOTO
www.inmoarrasate.com
ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokorosti.com
UDALATX
www.udalatx.com

JANARIAK

GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK

MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEA

BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberrri

KALAMUA

KLOROFILA
www.klorofila.com

KIROL DENDAK

LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK

GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

LANDETXEAK

ARTEAGA
www.artegalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK

BATUAK S.A.
www.batuak.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK

EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE LORADENDA
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK

KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK

AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK

MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA

GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia
ANTONIO BENITO
http://www.antonibenito.net

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA

FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK

ADOX
www.adoxnet.com
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK

BASTIDA
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK

EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIIKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK

GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK

GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK

GAZTEEN INFORMAZIO
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA

HAURTXXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK

URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK

ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILAK

ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

SARIA > MANUEL LEKUONA

Sabin Salaberri: "Ikasle apartak atera izana da nire meritu handiena"

Eusko Ikaskuntzak kulturako pertsona nabarmenei ematen dien Manuel Lekuona saria Sabin Salaberri musikari aramaioarrari eman dio aurten

MAIER URANGA > ARAMAIO

Sabin Salaberri aramaioarrak jasoko du aurten Manuel Lekuona saria. Eusko Ikaskuntzak, 1983. urtetik, euskal kulturaren pertsona aipagarriekin ematen dien saria aurten Aramaiora joan da. Sabin Salaberri musikari aramaioarrari eman dio aurten

Tomas Etxabbarri eta Julio Valdesekin Gasteizko seminarioan ikasi eta gero, Francisco Escudero maisuarekin ibili zen Donostian. Musika prestakuntza Jesus Guridi Kontserbatorioan osatu zuen, eta gero, bera izango zen bertako zuzendaria. 1996an, San Fernandoko Arte Ederretako Akademiako kide izendatu zuten. Aramaioko seme kuttun ere bada. 2006an, Urrezko Zeledoi saria eman zioten.

MAISUA, POZIK

Pozik dago Salaberri jasoko duen sariarekin, esan digunaren arabera: "Harrituta nago, ez nuelako espero. Aurreko urteetako sarituak Oteiza eta tamaina horretako artistak izan dira. Oraindik ez naiz ikaratik irten".



SABIN SALABERRI Aramaioko musikariak hainbat sari garrantzitsu ditu. GOIENKARIA

Erretiratuta dagoen arren, jarraitzen du musikarekin lotuta, musikariak sekula ez baitira erretiratzen. Argi dauka sariaren zergatia: "Nire meriturik onena musika ikasle apartak ateratzea izan da. Irakasten egin dudana lanaren emaitza dela uste dut; ikasle oso onak izan ditut".

Abesbatzen inguruan ere lan ugari egin izan du musikariak. Arabako Abesbatza, esaterako, berak sortutakoa da.

Gaur egun, Sabin Salaberri, irakasteaz gain, irratian saio bat egiten du domekero, eta hainbat komunikabidetarako ere lan egiten du.

Federico Luppi aktore argentinar ezaguna, atzo, Amaia Antzokian

El Guia del Hermitage antzezlanak ikusi zuten atzo Amaia Antzokira gerturatu zirenek. Harrera ona izan zuen, eta jendea aktore ezaguna ikusteko gogoarekin hurbildu zen.

Ikuslegoa, Luppiren laguntzaz, beste leku eta garai baten zegoelakoan egon zen antzezlanaren zehar. Lan paregabea, berak eta beste bi aktoreekin egin zutena. Pintura eta imaginazioaren magiaz lagunduta, Hermitagen, orain hutsik dagoen museoan, gertatzen da istorioa.



JOSETXO ARANZABAL

BERTSOAK > GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO FINAL-LAURDENAK

Ainhoa Agirreazaldegi finalerdietarako sailkatu da

Final-laurdenean txukun jardun eta gustura geratu zen Eibarko saioarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako hirugarren final-laurdena jokatu zen Eibarko Coliseo antzokian zapatuan. Aretoa, jendez lepo, eta taula gainean, Amaia Agirre, Iker Zubeldia, Hodei Iruretagoiena, Arkaitz Oiartzabal *Xamoa*, Iñaki Zelaia eta ibarreko ordezkari Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, bertsoarako gertu; gai-jartzaile, Oñatiko Egoitz Aizpuru.

ZORTZIKO TXIKIAN, UMORETSU

Txukun joan zen saioa eta, tarteka, bertso onak entzun ziren. Zortziko handian, motel samar jardun zuten bertsolariek. Txikian, piztu egin zen saioa. Zubeldiak eta Iruretagoienak entzuleen algarak eragin zituzten, umorea eta hitz jokoak baliatuz. Agirreazaldegik Agirrerren tonu sarkastikoari zuzen erantzuten asmatu zuen txikian ere.

Ofiziotakoaren ostean, bina punturi erantzun eta hitzari bertsoa bota zioten. Puntu erantzun polit batzuk joan ziren, eta, hitza emanda, aipatzekoa Amaia Agirrek *kolonia* hitzari botatakoa. Kolonia eta bertsoa parekatuz honela amaitu zuen bertsoa: "Behin bota eta luze irautea da bertsoan esentzia".

Hamarreko txikian ere, bertso politik joan ziren, serio batzuk, umorean beste batzuk.

Saioa borobiltzeko, kartzelako lana etorri zen, eta honakoa izan zen gaia: "Etxeko balkoian zaude. Baliteke hemen zauden azken aldia izatea". Bere buruaz beste egin behar zuten paperean jarri ziren Amaia eta Ainhoa; hiesak jota bata eta minbiziak jota bestea. Bertso hunkigarriekin, entzuleengana iristen jakin zuten.

Lanak amaitu eta, agurrak bota ostean, puntuazioaren berri eman zuten. Amaia Agirre zuzenean sailkatu zen final-laurdenetarako. Final-laurden bat falta den arren, puntuazioaren arabera, Ainhoa Agirreazaldegik ere lortu du pasea.

Saio ostean, Agirreazaldegik esan zigun saioan barrena gustura jardun zuela, eta pozik zegoela egindakoarekin.



Agirreazaldegi Eibarko saioan. I.A.

MUSIKA > AURKEZPENA

Bloody Hotsak zigilu berria aurkeztu zuten 3.60an, 'Bottle of Wine' diskoarekin

Zapatuan aurkeztu zuten, 3.60 aretoan, Roy Loneyren eta Señor Noren lan berria, kontzertu ahaztezin baten

M.U. > ARRASATE

Sekulako kontzertuaz ospatu zuten Irungo Bloody Mary disko dendak eta Sorraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak Bloody Hotsak zigiluaren sorrera, Arrasateko 3.60 aretoan. Bien arteko urteetako esperientzia musikalak eraman ditu proiektu berri hau sortzera, eta zapatuan aurkeztu zuten kaleratu duten lehenengo lana, *Bottle of Wine*, baina ez azkena izan

ere, atzo, domeka sartu ziren Señor No eta Roy Loney zigiluaren 4. lana grabatzera Andoaingo Garate estudioetan.

ROCKA, INOIZ EZ BEZALA

3.60 aretora joan zirenek rock-and-rolla sentitzeko aukera ahaztezina izan zuten Euskal Herriko zein kanpoko artisten eskutik. Joseba Irazokik bere proiektu berriarekin entzulegoa zeharo bereganatu zuen, eta Juan Karlos Bloody-ko arduraduna gitarrak jotzen ikusteko aukera ere izan zen.

Adin guztietako jendea zegoen 3.60an, sekula musikak eman duen artista handienetako batekin gozatzeko ilusioz: Roy Loney. Baina ez zen gutxiagorako izan, Señor No donostiarrak berarekin batera eskeini zuten ikuskizun bikaina.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Inurriak mendian edo tripan?

Egubakoitzean Arrasaten izan nintzen, Besaideren mende erdia batzen duen liburuaren aurkezpenean. Azken urteetan Besaidek egindako lana eskertu zuten herritarrek, eta baita Gipuzkoako eta Euskal Herriko federazioek ere. Asko harritu ninduen, baina, horren gazte gutxi egotea ekitaldian. Sala hartan bildutakoen batezbestekoa altua zela iruditu zitzaidan (inor mindu barik), kontuan hartuta gaur egun zenbat gazte ibiltzen den mendiaren bueltan: eskaldan, eskiatzen...

"Arrasateko Termitek inurri-jana izan zuten zapatuan; Txinatik ekarritakoak"

Gaiz aldatuz, zapatuan, Arrasateko **Termitek** inurri-jana izan zuten. Txinatik ekarritako inurriak arrautzekin nahastu... eta barru! Hurrengo batean, eta behin hasita, termitak ere probatu behar dituzte! Katua ere janda-koak omen dira.

Inurriak baino jaki goxagoak izango zituztenik ere badaude. Zapatu goizean, ezkontza bat ospatu zen Oñatiko udaletxean; eta bertan izan ziren, ezkongaez, gonbidatuez eta kuriosoez gain, Atzeko kaleko txorimaloak! Ez, ez naiz ari inor iraintzen. Hala izan zen; ezkontzen zena Atzeko kaleko jaietako batzordekoa zenez, lagunek Atzeko kaleko txorimaloak eraman zizkioten plazara. Ez dakigu **Groucho Marx** eta besteak bidaian ere joan ote diren.

asteburuko albuma



Erretiratuen bazkaria. Aramaioko erretiratuek euren eguna ospatu zuten zapatuan. Meza bereziarekin ekin zieten eguneko ekintzei, eta dantzariak izan ziren meza ostean. Bertako produktuak, artisau lanak eta animaliak azokan ikusi eta salda eta txorizoa jan ondoren, bazkaritarako gertu ziren erretiratuek. Kiroldegian egin zuten bazkaria, eta jai giroan pasa zuten arratsaldea, trikiti doinuekin erromerian eta zozketako opariak zeini tokatuko zain.



Aixolara irteera. Elgetako erretiratuek ibilaldia egin zuten eguaztanean. 15 lagun autoz Urbedeinkatura arte joan ziren, eta gero, Aixolako urtegiaren inguruan buelta eman zuten. Elgetara itzulita, afari-merienda egin zuten Ozkarbi elkartearen. Aixolako izan da aurturten erretiratuen elkarteak antolatu duen azken irteera, baina urtea amaitu aurretik izango da beste ekintzarik; gaitzaina erre-jana eta Gabon inguruan egin ohi duten batzarra, hain zuen ere.



Ume Dantzarien Eguna. Bi urtean behin egiten dute Ume Dantzarien Eguna Antzuolan, eta atzo izan zen aurtengoa. Ibarreko bost taldek hartu zuten parte: Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu; Aretxabaletako Loramendi; Oñatiko Oñatz; eta Antzuolako bertako Oinarinekoak. Goizean, herrian barrena dantzan kalejira egin ostean, alardea egin zuten plazan, eta herritarren etxeetara bazkaltzera joan ondoren, arratsaldean erakustaldia izan zen berriz, giro onean.



Larunblai. Txatxilipurdi aisialdi elkarteak, Larunblai programaren barruan, sormen tailerra egin zuen zapatu goizean Seber Altube plazan. Gaztetxoek artean sormena lantzea zen helburua, eta gerturatu ziren ume eta gaztetxoek, Txatxilipurdiko begiraleen laguntzaz, eskulanak egiteko aukera izan zuten. Besteak beste, CDak tenpera margoekin pintatu zituzten, eta bestelako margoak ere izan zituzten eskuartearen umeek.

Arantzak Arantzazun. Adin guztietako emakumeak eta txoko askotatik etorriak elkartu ziren Arantzazun atzo, 400 inguru, guztira. Baina bazen denak batzen zituen ezaugarri bat: euren izena, Arantza, Arantzazu zein Arantxa izenekoen topaketa izan baitzen atzokoa. Euskal Autonomia Erkidegoan, 20.000tik gora Arantza daude erroldatuta. Meza izan zuten lehenengo, eta argazkia atera ostean, batzuk bazkaritara joan ziren Sindika jatetxera. Bazkaldu ondoren, dantzaldia izan zen, eta baita tonbola ere. Gainera, bazkaritan izan ziren emakume guztiek giltzatak bana jaso zuten oroigarri modura.



ESKELA

Josu Bolinaga Aretxaga

Bergaran hil zen 2007ko urriaren 25ean, 43 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*



Zure lagunak.
Bergaran, 2007ko urriaren 29an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01**Eskelaren prezioa: 87 euro.**Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.****Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**

PARTE HARTU

Kintadak,
aste bukaerako ospakizunak,
ezkontzak, txutxu-mutxuak,
bazkariak, jaiak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

zorion agurrak



ARRASATE
Julen Gomez Ibaibarriaga
Urriaren 23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik; bereziki, Maider, Jon, Irati eta Manex.



ARRASATE
Alaitz Gomez
Urriaren 24an, 3 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.



OÑATI
Edurne Egaña
Urriaren 24an. Zorionak, guapa, eta urte askotarako, Ondo pasauko zeben eguna, ezta?



ARRASATE
Nora Otxandiano
Urriaren 24an. Urtetxo bat bete dozu; zorionak etxeko danon partetik. Segi horren alaia izaten.



BERGARA
Amaia Lakuntza
Urriaren 24an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat Antzuolako eta Bergarako familien partetik.


ARRASATE
Lucia Olazabal
Urriaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak eta muxu pila-pila, patata tortilla, Martxel, Bingen, Miren eta Joxemielen partetik. Eta pastela, noizko?



BERGARA
Marilu Unamuno
Urriaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak! Lankideak.



ARETXABALETA
Maren Lazpiur Eraña
Urriaren 25ean, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Zure lehen urtebetetze egunean, familia guztiak zoriontzen zaitu. Mila muxu!



ARRASATE
Nere Onandia
Urriaren 25ean, 3 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.



ARRASATE
Jose Felix Heriz
Urriaren 26an, urtebetetzea. Zorionak etxeko lagun partetik.



ARRASATE
Naia Etxabe
Urriaren 26an, 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.



OÑATI
June Illarramendi
Urriaren 26an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat familieren partetik.




ARRASATE
Jon Unamuno Aldabe
Urriaren 27an, urtebetetzea. Zorionak, Jon! Zure besoetako Juleneren partetik.



ANTZUOLA
Amaia Legorburu Rodriguez
Urriaren 27an, 5 urte. Zorionak, Aiora eta beste danen partetik.



ARETXABALETA
Inazio Isasmendi
Urriaren 27an, 58 urte. Zorionak eta urte askotarako familia guztiaren partetik! Ondo pasatuko zenuen eguna!



ARRASATE
Eider Muñoz
Urriaren 27an, 2 urtetxo. Zorionak Julene eta Iratiren partetik.



ELGETA
Eñaut Arantzeta
Urriaren 28an, urtebetetzea. Ondo ospatu duzu? Zorionak lagun partetik!

OÑATI
Uxue Egaña Azkargorta
Urriaren 30ean. Zorionak, Uxue! Sorgintxo, pentsau dozu ze erregalo gure dozun? Zuk eskatu, eskatu! Zorion pillo bat Tio Bittor, Marije, Iban ta Amaian partetik. Gutxiau falta da...




BERGARA
Leire Sanz
Urriaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat Oierren partetik.



OÑATI
Xubane Arregi
Urriaren 30ean. Zorionak, potxola, zure lehenengo urtebetetzean, eta muxu handi bat. Amama, aittaita, tio Iban eta tia Eli.



ARRASATE
Beñat eta Luken Jimenez Orobengoa
Urriaren 31an eta azaroaren 3an. Zorionak aita txi eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Lier Escobar Aperribai
Azaroaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak gure mutikotxo politxenai, urtetxo bat egin dau eta! Paaaaa!



ARRASATE
Mainer Frutos
Azaroaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, preioxoa! 3 urte, ondo pasa eta muxu pila zuretzako etxekuen partetik.



BERGARA
Marisol Gonzalez
Azaroaren 4an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasau zure eguna eta opari on asko jasoitzazula! Zure lankideen partetik

jaiotakoak



Naroa Imaz Poza
Bergara > 3,770 kilo. Urriaren 22an. Gurasoak: Asun (Bergara) eta Pedro (Bergara). Argazkian, Naroa jaioberria, bapo lo.



Beñat Azkarate Vazquez
Antzuola > 3,480 kilo. Urriaren 22an. Gurasoak: Iratxe (Arrasate) eta Belen (Arrasate). Argazkian, Beñat jaioberria, amama Begorekin.



Danel Cabana Rodriguez
Arrasate > 2,680 kilo. Urriaren 23an. Gurasoak: M. Jose (Bergara) eta Carlos (Ermua). Argazkian, Danel jaioberria, aitarekin.



Anne Hurtado Sanchez
Arrasate > 2,940 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Ines (Arrasate) eta Joaquin (Arrasate). Argazkian, Anne jaioberria, aita-amekin.




Haritz Arrese Otamendi
Eskoriatza > 3,280 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Maider (Eskoriatza) eta Gorka (Eskoriatza). Argazkian, Haritz jaioberria, gurasoekin.



Pablo Villaba Bastarrika
Eibar > 3,880 kilo. Urriaren 24an. Gurasoak: Miriam (Eibar) eta Iñigo (Elgoibar). Argazkian, Pablo jaioberria, amarekin.



Haritz Bilbao Iñarra
Bergara > 4,150 kilo. Urriaren 24ean. Gurasoak: Arantzazu (Bergara) eta Ibon (Bergara). Argazkian, Haritz jaioberria, lo.



Aratz Pascual Belategi
Arrasate > 2,570 kilo. Urriaren 25ean. Gurasoak: Saioa (Arrasate) eta Juan Carlos (Oñati). Argazkian, Aratz jaioberria, amamarekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Vanessa Sanchez > ETB2ko 'Teleberri'-ko aurkezlea

"Iraganean, guztia utzi nuen dantza egitearren"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Vanessa Sanchez Arrasaten jaio zen, baina txikitan Gasteizera jo zuen bizitzatera. Ordutik, ez da herri edo hiri berean denbora luzez egon. Geldiezina da, gauza berriak ikastea gustatzen zaio, eta abentura-zalea ere bada.

Neskatilatan, Gasteizera joan zinen bizi izatera. Aldaketa handia izan zen?

Bai, nahiko handia. Gasteiz oso gertu dago, baina zeharo desberdina zen orduan. Gogoan daukat, ikastolara joateko, autobusa hartu behar nuela. Ume batzuei autobusagatik euskaraz galdetu eta espainolez erantzun zidaten. Traumatizatuta gelditu nintzen. Etxera bueltatu nintzen, amari esan nion: "Hau ez da ikastola, maketoak daude!"

Gerora, UBI ikastera AEBetara jo zenuen...

Bai. Gurasoen apustua izan zen, nik ingelesa ikasteko. Hasi-eran, oso gogorra izan zen, baina merezi izan zuen. Han konturatu nintzen arrazakeria existitzen zela, mexikar asko esplotatuta

zituztelako. Nik Kaliforniarekin amesten nuen, baina Kansasera bidali ninduten. Jende guztiak mexikarra nintzela uste zuen. Adibidez, hango etxera heldu nintzenean, esan zidaten jana ezaguna izango nuela: takoak! Eta mexikarrek domeketan eurekin mezetara joatera gonbidatzen ninduten! Hala ere, azkenean lortu nuen ingelesa ondo ikastea.

Argi zenuen Kazetaritza ikasi gura zenuela?

Ez. AEBetan nengoela, amak deitu zidan galdetzeko zer auke-

ratu nahi nuen. Kazetaritza aukeratzea ez zen oso bokazionala izan, baina, bat aukeratzekotan, hori hartu nuen. Pentsa, Enpresa ikasketak ere aukeratu nituen, eta ez ditut batere gustuko.

EITBko berriemaile izan aurretik, Parisen egin zenituen urte batzuk. Zertan?

Frantsesa ikastera joan nintzen. Aita erdi frantziarra nuen, eta banuen hori ikasteko gogo. Ordutik, harreman estua izan dut Frantziarekin. Hizkuntza ikasi ostean, turismoaren alorrean lan egin nuen. Gerora etorri zen kazetari lana.

Urte askoan, dantza egin duzu...

Bai, eta, gainera, nire pasioa izan zen. Bizitzako une baten, kazetaritza eta beste guztia aloratu nuen dantza egitearren. Orduan, oso pasionala nintzen. Aste barruan, audizioak eta probak egiten nituen; eta aste bukaeretan, disko eta liburu denda baten lan egiten nuen. Baina oso gogorra zen, eta ez zuen etorkizun handirik.




BIDAIARIA Vanessa Sanchez arrasatearrak asko bidaiatu du.

IKER BARANDIARAN

www.goiena.net

Arrazakeriaren gaia pilean dagoen honetan, ibarrean arrazakeriarik igarri duzu?



biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Hil


Ez dago egi handiagorik munduan: hil egin-garela noizbait. Ordua eta tokia, bizitza, natura eta Jainkoaren eskuetan utzi ezker, ez dago jakiterik. Hobe horrelaxe. Bizitza nahiko estua izaten da. Jakingo bagenu noiz hilko ginatke, bizitza larrituko litzateke.

Santu Guztien bezperako egunotan heriotzaren gustu txarreko kontu hau atera nahi izan dut plazara. Hain hurbila eta egunerokoa izanik, oso gutxi hitz egiten baitugu heriotzari buruz. Elizan hileta bat ospatzen dugunean, egunkarietako eskelen orrialdeei gainbegirada ematen diegunean, etxeko atara maltzur eta hotz deitzen



duenean, itxurazko gutziak bertan behera datozkigu, orduantxe bizitza zein estimagarria den jabetzen garelako, zein ederra den arnasa, egunsentia ikustea eta bizirik gaudela sentitzea. Eguneroko gauzak baitira garrantzitsuenak eta ahaztuenak. Domu Santuen aste honetan, ariketa aproposa datorrik burura: heriotzaren ikasgaitik ikasi eta iraganean bizitza eta etxea eman zigutenak oroitu, esker onez. Hauxe da estimagarri zaizkidan gaiak: ikasi eta esker-tu. Bizi garenean hilko garela ahazten baitzaigu eta heriotzarekin Bizi Handira deituak gaudela.

eguraldia



MINIMOA
+05

MAXIMOA
+17

Temperatura jaitsi egingo da, eta euria egingo du egun osoan. Iparaldeko haizeak temperatura maximoak jaitsi egingo ditu.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK ERREALAK (2 SMS) Abestiaren izena | **KODEA**

1,2,3,4... Real!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Iuep!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Antaren ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Miami | **MIAMI**
Independential | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazu! (pilota) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALAPA**
Txanbela | **TXANBELA**
Txoootx | **TXOOTX**

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA**: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK**: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea, GPS sistema aktibatuzko, jarraitze zure hiritzailearekin harremanetan. Alta ematean idon da eta Ko jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistema alta ematea idon dira.
* Euskaltel deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone deitu 123-ra. / * Movistar deitu 609-ra.
3. **ZALANTZAK**: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK**: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.